

Herririk Herri |3|

Eskapararte ekimena antolatu dute Elorrion, komertzioa eta kultura batzeko

Ekonomia |10|

Dámaso Casado UGTko idazkari nagusia Durangoko afiliatuekin batzartu da



Berbaz |9|

Azkarate eta Álvarez: "Handia izan zen hiru txapel irabazi genituen urtea"

Osakidetzari murrizketak baztertzeke eskatu diote

> Zerbitzuen antolaketa lehengoan uztea eskatu dio Durangoko Udalak Jaurilaritzari

> Traña-Matienako eta Durangoko osasun zerbitzuetan eragin du berrantolaketak

2



Ana Dominguez

"Kontratua beste urte bat luzatzea proposatuko zidatela uste nuen"

Berriz Aspek ez dio kontratua berritu Asier Berasaluze Berrizko pilotariari. Gutun bidez jakinarazi zioten horren berri, eta handik egun bira Fernando Vidarte Aspeko buruak telefonoz deitu zion. "Erabakia kirol ikuspegitik barik enpresa aldetik hartu dutela esan zidan; bizi dugun krisi egoeraren arabera erabakia izan dela". Berasaluzek ez du pilota mundua uzteko asmorik. Dagoeneko partidu bat jokatu du EgurSport enpresagaz. Uda pasatu ondoren afizionatu mailako txapelketak hasiko dira, eta horietan parte hartzea asmoa dauka: "Sasoi bateko martxa ekarriko dit gogora".

21



• Izurtza

Biribilgunea egitea ez dago Aldundiaren aurreikuspenetan **4**

• Zaldibar

Berdintasunerako Komunikazio Ordenantza onartu dute **6**

• Atxondo

Kamioientzako saihesbidea egiten hasi da Udala **7**

• Berriz

Merkataritza Eguna ospatuko dute zapatu honetan **6**

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Osasun zerbitzuen berrantolaketa baztertzea eskatuko diote Jaurlaritzari

Aralar, EAJ, Talde Mistoa eta PPren aldeko botoekin onartu zuten mozioa; PSE-EEK kontra bozkatu zuten

Eusko Jaurlaritzak EAEko lehen mailako arreta zerbitzuen berrantolaketa jakinarazi du oraintsu. Aralarren ustez, berrantolaketa horrek "zuzenean eta txarrerako" eragiten dio Durangaldeari, eta berrantolaketa hori baztertzeko eskaera jasotzen duen mozioa aurkeztu zuen azken udalbatzarrean. Aralar, EAJ, Talde Mistoa eta PPren aldeko botoa jaso zuten eta PSE-EEren kontrakoa.

Traña-Matienan zerbitzua eta Durangoko osasun zentroan pediatria arlokoa kendu dituzte zapatuetan. Horrek Traña-Matie-

Aralar: "Gehiengo sindikalaren kontra egin dute berrantolaketa"

nako, Atxondoko eta Elorrioko erabiltzaileei ere eragiten die. Aralarreko Dani Maezturen esanetan, Osakidetza "gehiengo sindikalaren kontra eta langileen iritzia kontrastatu barik" jokatu du. Horrez gainera, eskualdeko langileen datuak eman zituen, eta berrantolaketa ondoen mediku, erizain eta administrariaren artean eskualdean zortzi langile gutxiago egongo direla salatu zuen.

PSE-EEren kontrako botoa
PSE-EEko zinegotzi Pilar Riosek "langile bat bera ez dela kaleratu" azpimarratu zuen: "Gainera, besteak beste, etenik bako arreta zerbitzurako lan taldera 73 langile gehitu dituzte eta profesionalen kontzentrazioa zerbitzuaren onerako da". Gainera, Traña-Matienatik Durangora ez dagoelako "hain-



Zapatuetan Durangora joan behar dute Traña-Matiena, Elorrio eta Atxondoko erabiltzaileek.

besteko" biderik esan zuten zinegotzi sozialistak.

Talde Mistoa gizarte ekintza-kudeaketa ezkeriaragoaren aldeko aldarria egin zuen. "AHTa lako proiektuak etengabe babesten dituzten bitartean, gastu sozialtan murrizketak ematen dira".

Zapatuetan Durangora etorri beharko dela eta, osasun zerbitzua "oinarrizko eskubidea" dela gogoratu zuten, eta ez "luxua".

EAJren esanetan, pediatria zerbitzua zapatuetan kentzea "guraso batzuentzako aldaketa larria" izango da: "Kostua arrazio-

nalizatu beharra izango zutela suposatzen dugu, baina hori herritarren zerbitzua murriztu barik egiteko eskatzen dugu".

Amaitzeko, PPko zinegotzi Cristina Ibarrolak mozioa babesten eta edukiagaz "guztiz ados" dagoela adierazi zuen. ■ J.D.

Hitzarmen bana Bizitzen eta Akanagaz

Udalak Bizitzen fundazioagaz eta Akana elkarteagaz dituen hitzarmenak berritu ditu. Bizitzen fundazioak genero indarkeria jasaten duten biktimei zuzendutako laguntza zerbitzua eskaintzen du. Biktimei laguntzen "Durangoko emakume langabetuak ipiniko dituzte, formazioa jaso ondoren", azaldu zuen Pilar Rios PSE-EEko zinegotziak. Talde Mistoa eta PPK

Bizitzen-ek genero indarkeria jasaten duten biktimei laguntza eskaintzen die

fundazioaren lanagaz pozik daudela adierazi zuten, baina esleipena leihaketa publikoan ipini behar litzatekeela adierazi zuten. Sozialistek zerbitzua irabazi asmorik bako fundazioak garatzea garrantzitsua dela esan zuten.

Bestalde, Akana elkarteak adimen urritasuna duten adin nagusikoei arreta zerbitzua eskaintzen die. Adimen urrikoekin norbere zaintza eta garapen pertsonala lako eremuak lantzen dituzte, besteak beste. ■ J.D.

Sasikoa kaleko zuhaitzak mozten dabilta

Udala ur-sarea sektoreka banatzeko lanak egiten ari da. Besteak beste, Alluitz kaleko adarra Sasikoako hoderia berrira lotzeko lanak gauzatu zituzte. Udalak jakinarazi duenez eremu horretako lanek "nahitanahiez" institutuaren parean eta kaleko alde bietan dauden makalak erazteak ekarriko du.

Dena dela, "ez dute botanika aldetik inongo baliorik". Aldez aurretik Zuzendaritza Fakultati-boak txostena azaldu zuen Hiri-gintzako Batzorde Informatiboan eta Batzordeak oniritzia agertu zuen.

Udal teknikariak balio handiagoko zuhaitzak ipintzeko aukera aztertzen ari dira. Mozitutako arbolen ordez, gutxiago hazten diren batzuk landatu gura dituzte. Gainera, sustraiek espaloietako zoruan arrakalik sortu ez duten espeziek aukeratu zituzte. ■ J.D.

"Nahitanahiez" bota behar dituzte ur-sarea hobetzeko lanak gauzatu ahal izateko

Bidegorria egokitzeko eskaera, labainkadengatik

Bidegorrian labainkorak ez diren pinturak erabiltzeko eskatu zuten PSE-EEK mozio batean

Bideetako zebrabideak eta geziak (norabidea adierazten dutenak) soslaia bakarrik pintatuta uzteko ere eskatu zuten mozioa PSE-EE, PP eta Aralarren botoekin onartu zuten. Talde Mistoa abstenitu egin zen, eta EAJk kontra bozkatu zuen. Idoia Agorria alderdi sozialistako

zinegotziak adierazi zuenez, "bizikleta eta moto arloko elkarrekin batu ondoren" osatu zuten mozioa, "eta Sigi-Saga eta Mas Curvas elkarrean oniritzia ere badauka". Eskatutako neurriak betetzen badira, "zorua ez dela hain labainkorra izango" adiera-

zi zuten Idoia Agorria zinegotzi sozialistak.

Irigorasen erantzuna

Aitziber Irigoras Durangoko alkateak mozioari ezezko botoa emateko arrazoiak azaldu zituen: "Bidegorrietako pintura labainkadengatik kontrakoa da dagoeneko", azaldu zuen.

Gezi eta zebrabideetako eskaerari buruz, duda egiten du proposamena "indarrean dauden arauetara egokitzen" den: Azkenik, PSE-EEren mozioa "demagogikoa, populista eta elektoralista" iruditzen zaio. ■ J.D.

Aparkaleku bat egingo dute Zeharmendietan

Bidegorriko lanek aparkaleku falta eragin dutenez, behin-behineko bat egitea adostu dute

Fauste auzoan bidegorriaren azken tarte eraikitze lanak egiten dabilta, eta horren ondorioz Zeharmendietan kalean hainbat aparkaleku hartuko dituzte. Arazo horri irtenbidea eman guran, behin-behineko aparkaleku bat egokitzea adostu du Durangoko Udalak inguruko auzo elkarrekin.

Urkiagatorre kalearen eta Fauste auzunearen artean egingo dute behin-behineko aparkalekua

Izan ere, bidegorriaren lanek aparkatzeko toki gutxiago izatea dakarte, eta Centro Social San Fausto eta Gure San Fausto Berria elkarrekin kezka agertu diote Udalari. Lehendik ere aparkatzeko toki gutxi zeudela esan diete, eta orain, lanekin, arazoa areagotu egin dela. Bi elkarrekin adostu da aldi baterako gunea egokitzeko, Zeharmendietan kalean; hain zuzen ere, Urkiagatorre kalearen eta Fauste auzunearen beraren artean egingo dute aparkaleku berri hori.

Udalak, elkarrekin agertutako "lankidetzak" eskertu eta auzotarreri erakutsi duten "pazientzia" estimatu die. ■ J.D.



ELORRIO



Gutzira, 24 stand ipiniko dituzte Udaletxe ondoko frontoi librean.

XIV. Azoka Ekologikoa antolatuko dute domeka goizetik eguerdira arte

09:00etan hasi eta 14:00ak arte egongo da azoka bisitatzeko aukera

Aurten XIV. aldia beteko du domekan Udaletxe ondoko frontoian egingo duten Azoka Ekologikoa. Elorrixa ekologia taldearen eta Marisatsa elkarrearen eskutik, aurten 24 bat standetan erakutsiko dituzte euren produktuak. Azoka 09:00etan hasiko dute eta 14:00ak arte egongo da zabalik.

Urtero legez, mota guztieta-ko produktu ekologikoak erosteko aukera eskainiko du azokak: ogia, pastelak, barazkiak, landare haziak, fruituak, gazta...

Azoka osatuko duten stand batzuetako ekoizleak Durangaldekoak izango dira (5 gutzira), Eus-

kal Herriko hainbat txokotatik etorritakoak ere aurkitu ahalko diren arren. Elorrixa taldeko Agustin Garciaren esanetan, "gure inguruko ekoizleei lehenetsuna ematen diegu, hori delako azokaren helburua, euren produktuak saldu ditzaten aukera ematea; mota horretako saltzaileak dira hainbeste, eta normalean Euskal Herri osotik etortzen da jendea".

Durangaldeko zein Euskal Herri osotik etorritako standekin osatuko dute Azoka Ekologikoa

Xake txapelketa

Berrio-Otxoa eguneko egitarauak beste ekitaldi batzuk ere utziko ditu asteburuan. Zaldi Baltza xake taldeak, esaterako, klubaren arteko xake partida azkarren lehiaketa antolatuko du bihar; partidak 16:00etan hasiko dituzte Udaletxe arkupeetan.

Elorrioko Zaldi Baltza, Durangoko Larrasoloeta eta Abadiñoko xake taldeez gainera, Gipuzkoa, Nafarroa, Araba, Errioxa, Kantabria, Asturias eta Madrilatik etorriko dira xakelariak. Lehenengo sailkatuek garaikurra eze Mendrakako Txakolin botila bana jasoko dute. ■ J.D.

Eskapararte: komertzioa eta kultura batzeko erakusketa

Merkatari elkarteko 20 dendatan euren jarduera islatzen duten argazkiak ikusgai ipini dituzte



Uztailaren 31ra arte egongo dira ikusgai argazkiak.

Elorrio Argazki Taldeak *Eskapararte* izeneko ekimena abiatu du uztailaren 31ra arte. Elorrioko Merkatarien Elkarteko 20 komertzioetan, jarduera bakoitza argazkilari baten ikuspuntu pertsonaletik definitzen duten argazkiak ipini dituzte ikusgai.

Ekimen honen helburua argazkilaritza herritarrei hurreratzeko eta Elorrioren gune artistiko bat sortzea da. Udalerriko kale historikoa erakusketa gela bihurtu dute, eta komertzioak dira argazkien erakusle. Gutzira, 20 komertzio ari dira parte hartzen ekimenean, eta "ibilbide berri-zaile, zabal eta ezberdin bat sortu dute", antolatzaileen esanetan.

Gaia librea da. Ikusgai egongo diren argazkilarien lanetan, bakoitzaren ikuspuntu eta sensibilitateak nabari dira.

Udaletxean, Kultur Etxean zein komertzioetan argazkiak ikusi daitezkeen dendekin osatutako mapa eskuragarri ipini dute. ■ J.D.

Balore handiko nekazal lurrak "errespetatzeko" eskatu du EHAk

Elorrioko Herritarren Aukerak Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra herrian balore agrologiko handia duten lurrak "errespetatu" ditzala eskatu zuen azken udalbatzarrean, mozio baten bidez. EHAk bakarrik bozkatu zuen mozioaren alde; beste alderdi guztiek kontra bozkatu zuten.

EHAren esanetan, Eusko Jaurlaritzak oraintsu "EAEko basozaintzako lurralde-plan sektoriala (LPS) antolatzeko proposamena onartu du, aho batez", eta hile biren buruan behin betirako onartzea aurreikusi dute. Hori kontuan hartuta, mozioak planean LPSak balore handiko nekazal lurraz jasotakoak "errespetatzeko" eskatzen zuten.

Zabarteren aldeko mozioa

Felix Zabarte kartzelan dagoela 25 urte bete direnean, "kalean beharko lukeela" salatze eta "elkartasuna adierazteko" mozioa onartu zuen udalbatzarra. Zigorren hiru laurdenak bete dituztenek edo gaixorik daudenak "etxean beharko luketela" gogoratu eta "dispertio politika" ere salatzen du mozioak. ■ J.D.

Felix Zabarte presoaren egoera salatze mozioa ere onartu zuten

Gizarte ekintza atala indartzeko eskatu du EAJk, mozio bidez

Bizi dugun krisi egoera dela eta, gizarte ekintza eremua indartzeko eskatu zuen EAJk mozio bidez. Horregaz batera, herri administrazioek laguntzak banatzeko orduan "eragingarriagoak" izan behar dutela uste dute, eta "laguntzak benetako beharri-za dutenei heltzen zaizkiela bermatu" behar dela. Udalbatzarra mozioa onartu zuen, baina Ezker Abertzaleak proposatutako moldaketa gehitu ondoren. Gizarte ekintzaren eremua Durangaldeko Amankomunazgoaren esku dagoenez, mozioak proposamena Berdintasun eta Gizarte Ekintza Sailean aztertuko dela jaso zezan eskatu zuten.

Laguntzak banatzeko orduan "eragingarriagoak" eskatzen dute jeltzaleek

EAJk mozioan jasotako datuen arabera, martxora arteko datuak kontuan hartuz, sarrierak bermatzeko errenta 74 bizilagunek jasotzen dute. Pentsioaren osagarri erako dirulaguntza 42 alargunek jasotzen dute; etxebizitzako osagarri mantenuak, berriz, 134 lagunek.

Gizarte larrialdietarako laguntzei dagokienez, apirilaren 15erako 29 eskari aurkeztu zituzten. ■ J.D.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

professional learning space

HEZKUNTZA MASTERRAK

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa.

Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztasunetan Masterra (EKOMU).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntza irakasle gisa aritzeko Unibertsitate Masterra.

Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan Masterra.

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Dorleta z/g, 20540 Eskoriatza / Tel. 943 71 41 57
www.mondragon.edu/muplus/hezkuntza

OTXANDIO

Jaietan ere txoko legez jarraituko du Pasealekuk

Kudeaketa eredu aldatu zutene-tik, hastear diren hauek ditu lehenengo Santamañak Pasealeku jubilatuen elkarteak. Orain arte txoko moduan "ezin hobeto" funtzionatu dutela dio Pili Azkorbe-beitia elkarteko lehendakariak eta, beraz, jaietan taberna moduan ez ipintzea eta orain arte moduan jarraitzea erabaki dute. Txokoa zabalik dela baten batek edariren bat hartu gura badu "barruan dagoen bazkideak zerbitu diezai-ke, eta gero berak apuntatu".

Bazkideek "erantzukizun handiz" jokatu dutenez, berdin jarraitzea erabaki dute

Maiatzean egin zuten aldake-ta, eta lehenengo hiruhilekoaren balantzea "oso positiboa" da: "Hasieran bagenuen kezka txiki bat, baina bazkideek erantzukizun handiz jokatu dute, eta ez da eze-lako arazorik sortu".

Gainera, aldatetaz bazkide kopuruak ere gora egin du. Bilagu-nek elkarte utzi arren, hamar bazkide berrik eman dute izena Pasealekun. **0** ■ J.D.

IZURTZA

Biribilgunea egitea ez dago Aldundiaren aurreikuspenetan

Joan zen barikuan biribilgunea egitea "gaitz" ikusten duela jakinarazi zion Aldundiak Udalari

Bizkaiko Aldundiaren aurreikuspenetan ez dagoela Izurtzan biribilgunea egitea eta proiektua datorren urtean gauzatzea ere "oso gaitz" ikusten dutela jakinarazi zioten, joan zen barikuan Aldundian egin zuten batzarrean, Udalari.

Proiektua Udalak berak finantzatu zuela pentsatzen zutela esan die Aldundiak

Biribilgunearen proiektua onar dezaten "Aldundiagaz atzera eta aurrera lau urte" daramatzatela eta "sinesgaitza" egiten zaiela joan zen barikuan Aldundiak eman zien erantzuna azaldu digu udal gobernua: biribilgunea egiteko lanak Udalak berak finantzatu zituela pentsatzen zutela erantzun zieten salatu du Ballarin jarduneko alkateak.

Izurtzako Udalaren ordezkari-ek diotenez, "Aldundiaren ardurakoa den errepidean biribilgunea egiteko gure Udala 800.000 euro ordaintzeko prest egon litekeen pentsatzea sinesgaitza" begitantzen zaio gobernu taldeari: "Guk ez dugu lau urteotan sekula hori esan, Udalak ez dauka-eta horretarako baliabiderik".

Herrigunea igarotzen duten ibilgailuen abiduraren kalteak leuntzeko funtzioa izango lukeen biribilgunea herriarentzako duen garrantzia kontuan hartuta, asteon hitzarmen baterako proposamena bidali dutela Aldundira azaldu digu Udalak: proiektua Udalakosatzea eta egitasmoa finantzatzeko modua elkarregaz adostea. ■ I.E.

Aldundiagaz hitzarmen bat adostea ikusten du Udalak aukera bakar moduan



Biribilgunea eraikitzea ezinbestekotzat du udal gobernua.

ABADIÑO

Asteburua jai-giro beroan igarotzeko egitarau oparoa Mendiola auzoan

Gaur, uztailaren 9an, altxatuko dute San Kristobal jaiak iragartzen dituen txopoa Mendiola auzoan

Gaur hasita, hiru egunetarako jaietararako egitarau zabal eta interesgarria atondu du Mendiola auzoko Jai Batzordeak. Gaur iluntzean, 19:00etan, Donien Atxa altxatu eta berakatz sopa dastatu ondoren, hiru talderen zuzeneko emanaldiak izango dira Mendiolan; Mañaria eta Izurtzako musikari-errien Silikosos, Sermond's elorri-arrak, eta Iruñeko Bizardunak taldekoek girotuko dute 23:00etatik aurrera Mendiola San Kristobal jaietako lehenengo gaua.

Durungaldeko Silikosos eta Sermond's eta Nafarroako Bizardunak-en doinuek berotuko dute gaurko gaua

Hiru jai-egunetako bigarrena dagoizetik hurrengo egunera arteko egitaraua eskaintzen duena: 11:30etan meza, ezpatadantzari-ekitaldia 12:30ean eta herri bazkaria izango da ondoren. Bazkalostean, berriz, Andoni Egaña eta Igor Elortzaren bertso saioa izango da Mendiola plazaan.

Ohiturazko artzai-txakur eta tortilla txapelketak, Antton bakar-lari elorriarraren musika emanaldia eta Luhartz taldearen erromeria izango dira zapatu gauerako.

Domekan, meza ondorengo Alluitz dantza taldearen emanaldiagaz amaituko dira jaiak. ■ I.E.

Zapatu bazkalostean, Andoni Egaña eta Igor Elortza bertsolarien saioa aukeran



Bizardunak taldearen musika entzungai gaur, Mendiolan.

IURRETA

Hainbat auzoko jaiak datozen asteburuetan

Joan zen zapatuan eta domekan Amatzua auzoko jai batzordeak antolatutako ekitaldietan auzoa jai giroz bete zen moduan, herriko beste bi auzotan ospatuko dituzte euren jaiak datozen asteburuetan. Atzo goizean, bestalde, txupinazoa, meza eta luntxagaz ospatu zuten San Andres auzoan bertako jai eguna.

San Andres eta Arriandi auzoetan jai egunak dituzte datozen asteburuetan

Uztailaren 10ean da, bihar, Arriandi auzoko Santa Marina baselizako jaien egitarauko lehenengo hitzordua: "paella erraldoia" egingo dute, auzotar eta bisitari guztiak zapatu eguerdia jai giroan igaro eta bazkaltzeko aukera eskaintzeko. Datorren barikuan, bestetik, auzoko lehenengo poker txapelketa eta beste hainbat lehiaketa eta ekitaldi antolatu dituzte. ■ I.E.

MAÑARIA

Ehun argazki batu dituzte erakusketarako

Kultur Etxeko lehenengo solairuan ipini dituzte herritarrek erakusketarako bidali dituzten argazkiak, uztailaren zehar eta abuztu erdialdeko herriko jaietara arte bertan izango dira ikusgai.

Azken urteetan udaletik antolatu duten argazki lehiaketa aurrekontu faltagatik bertan behera uztea erabaki ondoren egin zuten udalak erakusketa honetarako argazkiak bidaltzeko proposamena herriko argazkizale guztiei. Udaberriantolatu duten Aste Kulturalean jasotako ekintzen argazkiak egitea zen udalaren proposamena. Udalean diotenez, bost lagunek erantzun diote deialdiari, eta herriko aurtengo ekitaldiak islatzen dituzten 100 argazki bildu dituzte erakusketarako.

Herritarrek formatu digital-ean aurkeztu dituzten argazkiak inprimatu eta gura duten guztientzako ikusgai ipini dituzte, beraz, orain hasi eta herriko jaietara bitartean. ■ I.E.

Arriike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

MOMOTXO
TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

Gremioen gida



Iturgintza

Arriandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefakzioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behea, 3 atea
Sakelakoa 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
Iurreta

Baimendun
Instalatzaileria

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Televés
Instalatzaileria Ofiziala

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

ARGITZAPEN TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

urtiaga

grebioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

Baserriak eta etxebizitzak
berriztatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Barrualdea diseinatzea

Teillatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

Ubide iturgintza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Pintura

Ibai Urien Madrazo

Pintura
apaingarria
eta industrialia

Pinturas Sagasta
Pinturas

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944

- Finkadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, hamizatuak, ...)
- Era guzietako bama eta kanpoko dekorazioak (lokaleak, tabernak, etxebizitzak, ...)
- Aztrekoentzako konpromisuz gabe

Garbiketak

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristallizatuak eta alfombra

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

- TIC aholkularitza
- Ekipamendu hornikuntza (kontsumigarriak)
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantenimendua
- Farmazioa
- LOPD/LSSI adaptazioa

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

ZALDIBAR

Berdintasunerako Komunikazio Ordenantza onartu dute Udalean

Ordenantza "berri eta garrantzitsu hau" datorren ostiraletan sartuko da indarrean


Zaldibarko Udalak berdintasunerako komunikazio eta hizkuntzaren ordenantza onartu zuen, aho batez, azken udalbatzarrean. Arantxa Nuñez, Zaldibarko berdintasun teknikariak dioenez, "berrikuntza da berdintasunerako Zaldibarko ordenantza hau; eskualdean ez dago era honetako ordenantza askorik".

Ordenantza datorren ostiraletan sartuko da indarrean eta, horrela, berdintasunean oinarritutako komunikazioa bultzatuko dute Udalak igortzen dituen dokumentu eta irudi guztietan. Esate baterako, jaietako programazioan, karteletan, bandoetan, errotulazioan edo webgunean.

Gaztelerazko testu idatzietan hitz orokorrak erabiliko dira genero markatzen dutenak erabili beharrean. Izan ere, Arantxa Nuñez

Berdintasun teknikariak dioenez, "hizkuntza ez da sexista; erabilerara da sexista. Beraz, hizkuntza aldaketarako tresna da". Bestalde, ez dute sexuen araberako estereotipoak islatzen duten irudirik erabiliko. Horrela, ordenantzan jasotzen denez, emakume eta gizonen rol tradizionalak ahultzen lagunduko dute, eta gizartearen aniztasuna indartzen. Arantxa Nuñez Berdintasun teknikariak adierazi duenez, "beharrezkoa da ildo batzukezartzea dokumentuak orokorrean oso maskulinizatuak egoten direlako".

"Berdintasuneko ordenantza berrikuntza garrantzitsua da"



Ordenantza honek Udalak igorritako dokumentuetan jarraitu beharreko ildoak zehaztuko ditu.

Berdintasun Saitetik udaleko beharginek erabiltzeko gida egingo dute, eta irailean bikurtso emanango dituzte; bat politikoei zuzendutakoa da eta bestea teknikariei eta administrazioko beharginei.

Nuñezek azaldu duenez, "udalak eredu izan gura du berdinta-

"Ildoak ezartzea beharrezkoa da, ze dokumentuak orokorrean oso maskulinizatuak izaten dira"

sumari hartzen duen komunikazio eta hizkuntzaren erabileran, jendea sentsibilizatu eta berdintasunaren alde egiten dugun lana erakusgarri egin".

Bestalde, oposaketetan %5 baloratuko da hizkuntzaren erabileraren inklusioa eta ez sexista. ■ G.A.

BERRIZ

Euskal mitologiak girotutako udalekuak

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 154 neska-mutikok hartuko dute parte ekintzetan

Berrizko udaleku irekiak aste honetan hasi dituzte haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako 154 neska-mutikok. Ekintza gehienak Berrizko Learreta-Markina ikastetxean egingo dira, goizeko 9:30etik 13:30era. Ekimen guztien ardatza euskal mitologia, kondairak eta Erdi Aroko bizimodua izango dira. Besteak beste, kobazulo bat moldatuko dute, galtzagorrien eta basajaunen jantziak egingo dituzte, eta armari eta diru-zorroak diseinatuko dituzte.

Irteera batzuk ere izango dituzte. Haur hezkuntzakoak Mungia Olenzeroren Etxera joango dira. Beste irteera batzuetan Donostiako akuariumera edo Gorlizko hondartzara bodyboard egitera joango dira gaztetxoak. Lezama ere irteera egingo dute, Athleticen entrenamendu eta instalazioak ikusteko.

DBHko 14 ikaslek uztailaren 12tik 16rako astean Gorlizko hondartzan arratsaldero abentura ekintzak izango dituzte. ■ G.A.

Merkataritza Egunean azoka eta dastaketak



Iazko Berrizko Merkataritza Eguneko azoka.

Berrizko Merkataritza Eguna antolatuko dute zapatu honetarako Berrizko Merkataritza Elkarte eta Berrizko Udalak. Olakueta plazan azoka izango da, goizeko 10:00etatik 20:00etara. Bertan aukera zabala eskainiko dute Berrizko merkatariek; mertzeriak, arropak edo loreak erosi ahal izango dira bertan antolatzaileek adierazi dutenez, prezio onean: "Aukera oso onak egongo dira".

Eguerdian partean, herriko hainbat janari dendetan jakiak dastatzeko aukera egongo da. 13:30etik 14:30era hainbat tabernatan ere pintxoak dastatu daitezke. Bestalde, ilepaindegi eta estetika zentroetan tratamendu bereziak eskainiko dituzte.

Antolatzaileek ia zkoa errepikatuko gura dute: "Ondo joan zen. Jendea pozik ibili zen eta herritarrek parte hartu zuten". ■ G.A.

anboto, durangaldeko astekaria

doan

Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali



ATXONDO



Dagoeneko igartzen da bidea nondik nora joango den.

Kamioiak desbideratzeko saihesbidea egiten hasi dira

Azarorako bidea kamioiak pasatzeko moduan egotea aurreikusi dute

Gaztetxe ostetik Fuchosara kamioiak joateko lanak joan zen astean hasi zituzten. Lurrak mugitzen hasi dira dagoeneko, eta abuzturako bidea marraztuta egongo dela azaldu du David Cobos Atxondoko alkateak. Saihesbidearen lanak amaitzeko hamar asteko epea izango dute.

Abuztuan lanak gelditu egingo dituzte, eta iraila eta urrian asfaltatu eta egokituko dute bidea,

ibilbidea turistentzat ez eze herritarrentzat ere badela adierazi zuten aurkezpenean

azarorako amaituta egoteko. Lanek 157.000 euroko aurrekontua daukate, eta Espainiako Gobernuaren tokiko inbertsioetarako diru-laguntzekin egingo dituzte.

Apata erditik egunean 60 kamioi inguru eta 350 bat kotxe igarotzen dira Fuchosara joan-etorrian. Azarotik aurrera trafiko hori desbideratu egingo dute. Dena dela, ez da behin betiko bidea izango; epe luzera Artiako poligonotik gertuago bide bat egiteko asmoa dauka Udalak. Gaztetxearen eta Urkuzu baserriaren artean, gainera, berdegunea atontzeko asmoa dute. ■ A.U.

MALLABIA

Kalbario kalea atontzeko obrei ekingo die Udalak

Obra 300.000 eurokoa da. Europako eta Jaurlaritzako laguntzekin finantzatu dute

Kalbario kalea urbanizatzeko lanei irailan ekin gura die Udalak. Auzokideekin bildu dira astean, aurreikusi dituzten konponketak azalduz euren ekarpenak jasotzeko.

Obra egiteko ardura zer enpresari eman uztailearen amaieran erabakiko dute

Obraren ardura zer enpresari emango dioten uztailearen amaieran erabakiko dute. Lanak irailan martxan jartzea aurreikusi du Mallabiko Udalak. Ingurua

abendurako atonduta egotea da asmoa Aitor Loiola alkateak azaldu duenez. Obren aurrekontua 300.000 eurokoa da. Europako eta Jaurlaritzaren diru-laguntzekin finantzatu ditzuzte lanak.

Kaleko goiko aldean jesarlekuak jarriko dituzte. Minusbaliatuentzako kalea egokituko dute. "Obra ezker aldean zentratuko ditugu eskumako etxeak bota egingo dituztelako", dio alkateak.

Laguntza honekin, Izartu Plana amaituko du Udalak. Mikel Zarateko igogailuak jartzeaz gainera, aurretik Mallabarrena kalea urbanizatu eta parkeko zorua konpondu dute. ■ J.G.

GARAI

Ordiziarako irteera eratu dute nagusiek

Uztailaren 19rako Ordiziarako irteera antolatu du San Migel nagusien elkarteak. Hilaren 13a da izena emateko azken eguna.

Goizeko 09:15ean hartuko dute Ordiziarako bidea. Gipuzkoako herrian, alde zaharretik buelta bat emango dute, eta Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa bisitatu dute ondoren. Eguerdian, Txindoki jatetxean bazkalduko dute, menu dotore eta oparoagaz. Amaitzeko, Donostian pasatuko dute arratsaldea. 22 euro da txartela.

Uztailaren 13a da izena emateko azken eguna; 22 euro da txartela

ATXONDO

Bariku gauetan filmak emango dituzte, gaurtik aurrera

Datozen lau barikuetan, 22:00etatik aurrera, zinema emanaldiak eskainiko dituzte Atxondon. Gaur izango da lehenengoa: Arrazolako frontoian *Eutsi!* filma jarriko dute.

Orain dela urte bi egin zen antzera, aurten ere, Apatan, Arrazolan eta Axpen emango dituzte pelikulak. Hurrengo biak Apatan izango dira, eta azkena Axpen. Beste barikuetan honako hiru filmak eskaintzeko asmoa daukate: *Romanzo Criminale*, *Dejame Entrar* eta *Invictus*.

BERRIZ

Euskaltel-Euskadiri 'Maldan gora' lagunduko dion abestia

Tourra Pirinioetan lehenengoz sartu zenetik 100 urte joan dira, eta Euskaltel-Euskadiri orain 10 urte parte hartu zuen estreinakoz Frantziako Itzulian. Urteurren horiek direla-eta, Etxe musikari berriztarrak *Maldan gora* izeneko abestia sortu du. Etxeren esanetan "taldea bera eta hara doazen zaleak animatzea" du helburu abestiak. Euskaltelek Tourreko taldea aurkezteko egindako prentsaurrekoan aurkeztu zuten abestia ere.



IURRETA

Kimuak elkarteko udaleku ibiltaria, Elizondora bidean

Kimuak aisialdi elkarteak aurtengo ibilaldi ibiltaria egiten dabil. Astebeteko bidea osatuta, orain Beran daude, eta datorren astean Elizondorainoko bidea egingo dute. Iurretan hasi zuten ibilbidea eta Nafarroa zeharkatzen dabilza. Bakedanotik Urbasara igo eta gero Etxarrira jaitsi ziren. Ondoren, Sakanatik Lekurberrira joan ziren Aralarreko parajeaz gozatzeko, eta Leitza San Ferminetako txupinazoagaz bat egin zuten.



MALLABIA

Mallabia-Ondarroa autobus linea aldatuko du Euskotrenek

Zapatu honetatik aurrera eta bestelakorik jakinarazi arte, Euskotrenek Mallabia-Ondarroa autobus lineen ibilbidea aldatuko du Eibarren. Aldaketa hori Eibarko San Agustin kalean obretan dabilzalako egingo dute. Autobusa Untzagako geralekua ondoren (taxi geltokiaren aurrean) saihesbidera sartuko da Azitaraino heltzeko —Geltoki kaletik sartu barik—, eta Iparra-girreko bide berriaren alboan egingo du geraldia.

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

BERBAZ >

“Lehenago frontoiak beti zeuden topera; orain hori finaletan bakarrik gertatzen da”

Omenaldia jaso zuten zapatuan Hilario Azkaratek eta Jose Antonio Álvarezek; Elorrio pilotarien habia izan dela diote

Duela 50 urte Hilario Azkarate, Felipe Lejarazu eta Jose Antonio Álvarez pilotariak txapel bana ekarri zuten Elorriora. Horrelakorik beste herriren batean ziurrenik ez dela gertatu dio Álvarezek. Azkarate eta bera izan ditugu berbalagun zapatuan omenaldia jaso eta gero.

Askotan esaten da lehen elizpean jokatzeko zela pilotan.

Jose Antonio Alvarez: Elorrioko elizpean lehen kartela zegoen: “Prohibido jugar a pelota”. Euria zenean, baina, gu bertara joaten ginen, eta udaltzainak zetozenean arineketan eskapatu behar.

“Segituan igartzen zaio pilotari bati fakultateak dituen ala ez”

Entrenatzeko zelan moldatzen zineten?

J.A.A.: Ahal genuenean. Beharretik eguerdian irten, entrenatu, aurpegia garbitu eta berriro lanera joaten ginen. Domeketan libre edukitzen genuenean, mendira joaten ginen; Besaidetik, Kanpazar osterara irtetzen genuen, lau-bost ordu basoan. Egun batean Gainza Athleticeko jokalaria-gaz berbetan egon nintzen-orduan entrenatzaile zebilen-, eta zelan prestatzen ginen galdetu zidan. Mendikoa kontatu nion, eta hark brometan zera galdetu zidan, ea mendian frontoian moduko lurra zapaltzen genuen, eta ea frontoian aldapan gora eta beheara ibiltzen ginen. Pilotan genbiltzanean moduko lurrean entrenatu behar genuela esan zidan. Frontoian bueltaka ibili behar ote nuen galdetu nion, eta hark ezetz, lur gogor eta lauean arineketan egiteko, Elorriotik Durangora edo. Orduetik, arineketan errepide albotik egiten genuen.

Hilario Azkarate: Astia edukitzen genuenean prestatzen ginen. Mutikotan gu baino nagusiagoek ez ziguten uzten frontoian jokatzeko. Gu egoten ginen, eta eurak etortzerakoan, joan egin behar.

1960an txapel bana irabazi zenuen Erre-kakaleko hiru pilotarik.

J.A.A.: Bai, hirurok gara bertan jaiotakoak. Gogoratzen dut 1960an, Hilariok txapela irabazi zuenean, Luzio udaltzaina txapligoak bota-



Argazki-press

“Domeketan mendira joanda entrenatzen genuen, Gainzak frontoian aldapak zeuden galdetu zigun arte”

tzen ibili zela. Banda bat zegoen, musika, alkatea, guardia zibilak... hantxe denak. Erreka kalean farmaziako kantoiaren izena lehenago Carlos VII zen. Kale hartara kalejiran heldu eta Luzio txapligoak bota eta Pedro Altuna alkateari esan zion kale hari “la calle de la pelota” izena ipini behar zitzaioela.

H.A.: Handia izan zen urte hori.

Herri guztia zegoen gugaz. Elorri on beti egon da zaletasun handia. Pilotari on asko egon da gurean, eta frontoiak beti beteta zeuden, topera. Orain hori finaletan baino ez da pasatzen.

Pilota mundua asko aldatu da?

H.A.: Orain badabilta mutikoak eskolan, baina gu lehenago gehiago

Hilario Azkarate eta Jose Antonio Álvarez •

- Elorriar hauek pilotako txapel bana irabazi zuten 1960an. Azkaratek 1. mailan eta Álvarezek afizionatu mailan. Urte berean Felipe Lejarazuk 2. mailako txapela eskuratu zuen.

mugitzen ginen, txapelketetara-eta. Lehenago Elorrio pilotarien habia zen. Larrinaga daukagu profesional bakarra gaur egun.

“Guk derrigorra zenean bakarrik ematen genion pilotari airez”

J.A.A.: Ea besteren bat laster izaten dugun! Gauzak aldatu dira, bai. Lehenago pilotak eta oraingoak oso desberdinak dira. Orain txikiagoak dira, eta gure garaian pilota frontoira joaten zenean eginda zegoen; orain ia egin barik egoten dira. Lehen, hik zenbat esparatrapu eta tako erabiltzen hituen eskuan?

H.A.: Gutxi.

J.A.A.: Nik bat ere ez.

H.A.: Eskuman jartzen nuen apur bat, airez jo behar izaten nuenerako. Orain airez asko jotzen dute, baina guk derrigorrezkoa zenean bakarrik egiten genuen. Sakean ere airez jotzen diote orain. Lehenago pentsatu ere ez! Eskuetan minik ez egiteko ea zer egiten nuen galdetzen zidaten; nik Uratsara joaten nintzela erantzun. Kontua ondo jotzea da.

Pilotan ona izateko zer behar da?

J.A.A.: Berezkoa da; fakultateak eduki behar dira. Segituan igartzen zaio pertsona bati pilotarako balio duen ala ez.

H.A.: Mugitzen jakitea da kontua. Ikusi egin behar da pilota nora doan, eta mugitu egin behar zara. Geldirik egonez gero, ez da ezer egiten. ■ A.Ugalde

EKONOMIA[>]

> DURANGO

Dámaso Casado, Euskadiko UGTko idazkari orokorra barikuan Durangoko UGTko afiliatuekin bildu zen irailaren 29rako deitu duten greba orokorraren inguruan berba egiteko.

Dámaso Casadok adierazi duenez, "Espainiako Gobernuak beharginen eskubideen kontrako lege dekretuak egin ditu, eta orain arte lortu dugun eskubideetan atzerapausua ematen da". Greba orokorragaz "aldaketa eragin gura dugu, eta erreformak beharginentzako positiboak izatea lortu; langileak indartu daitezela eta politikoak mentalizatu ez dutela bakarrik kapitalismoaren eskutik joan behar".

Dámaso Casado: "ELA irailleko grebara gehituko dela itxaroten dugu"

Dámaso Casadok greba orokorrean "sindikatuaren batasuna funtsezkotzat" jo du. Irailaren 29ko greba "orain dela asko" erabaki zutela adierazi du Casadok, eta Europa mailako sindikatuaren erabakia izan zela, eta ELA ere han izan zela dio. "Beraz, espero dut ELA ere irailleko grebara gehitzea", esan zuen. Bestalde, ekainaren 29ko greba ez dela "logikoa" iritzi zion

Corus Layden CCOOk du gehiengoa

Durangoko Corus Layde metal arloko enpresan CCOOk irabazi ditu hauteskunde sindikalak. Horrela ELA sindikatuari gehiengoa kendu diote. CCOOk 126 bozketatik 51 lortu ditu hauteskundeetan. Beraz, Enpresa Komitean CCOOk lau delegatu dauzka orain —lehenago baino bi gehiago—, ELA hirugaz gelditu da eta LABek bilortu ditu. CCOOk adierazi duenez, "egin dugun lanagatik beharginen emandako konfiantzazko botoa da". ■ G.A

Sindikatuaren batasuna "funtsezkotzat" du UGTk

ELAk ez deritzo logikoa dekretua abuztuan onartu eta greba irailean egiteari



Mauricio Garcia, Dámaso Casado eta Maribel Ballesteros Durangoko UGTko egoitzako bileran.

Casadok, "iraillekoa lehenago hitzartuta baitzegoen. Gainera, Espainiar Gobernu eta politikoen gan ez du oihartzunik izan".

ELAk dioenez, "printzipioez dugu irailleko greba egingo". Izan

ELAk adierazi duenez, "printzipioez ez dugu irailaren 29ko greba egingo"

ere, "ez da logikoa abuztuan dekretua onartu eta greba orokorra irailean egitea".

Bestalde, Europar mobilizazioak egiten dabilzala dio ELAk, "ez greba orokor bateratua". ■ G.A.

Erralde hiltegiak "lanez lepo" egotea ezeztatu du

Zorroza hiltegiari "babesa" eskaini dio Erraldek

Durangoko Erraldek Bilboko Zorroza auzoko hiltegia berriz zabaltzeko protesten iguruan komunikabideek jaso dituzten adierazpenak "ez kontrastatzea" salatu du. Izan ere, Erraldek "lanez gainezka" dagoela gezurtatu du, eta abeltzain eta harakinei ematen dien zerbitzua "aparta" dela gaineratu gura izan du.

Bestalde, Euskal Herrikoak ez diren behiak hiltzeko Erralde ez aukeratzea "lanaren prezioa" izan

daitekeela uste du Durangoko hiltegiak.

Zorrozako proiektuari babesa Erralde hiltegiak "babesa" eskaintzen die Zorroza hiltegia berriro zabaltzeko behar duten bultzatzaileei: "Oparoa izan dadila eta errentagarri egin dezatela; baina abeltzainen sektorean funtzio publikoa bultzatuz, interes pribatuaren defentsaren tentazioan ez jautzea espero dugu". ■ G.A

> ELORRIO

Elix enpresan akordiora heldu dira

Elorrioko Elix enpresan akordioa sinatu zuten, joan zen barikuan, sindikatuak eta enpresako zuzendaritzak, eta sindikatuak "pozik" agertu dira. ELAk dioenez, beharginen gura zuten "igoera ekonomikoa lortu dute".

CCOO sindikatuak "zentsuzkotzat" jo du akordioa. Soldata atzerapenak aurtengo urtean zehar jasoko dituztela erabaki dute bileran. ■ G.A

■ kolaborazioa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

Osalan eta lan osasuna estatuko ereduaren menpe

Sindikatu abertzaleok bat egin genuen joan zen uztailearen 5ean EAEko Osalaneko partaidetza instituzionala bertan behera uzteko. Eta arrazoiak askotarikoak eta ugari dira: Eusko Jaurlaritzak lan-osasunari ez dio behar bezalako arretarik jartzen, eta ezbeharren benetako zergatien ez die heldu nahi; izan ere, hala egitekotan patronalaren interesen aurkako erabakiak hartu beharko lituzke. Osalaren aurrekontua, 2010erako aurreko urtearekiko %8,4 murriztuta zegoen arren, beste kolpe batean moztu egingo dute; guztira, %43. Murrizketa eskandaluzkoa da, berezko aurrekontua barregarria baitzen, BPGren %0,02tik beherakoa. Osalan erakunde burokratizatu da, ezgauza eta patronalaren zerbitzuan dihardu. Batzorde Orokorra antzezpen formal bat besterik ez da. Adibidez, Jaurlaritzak, Confesbasken, CCOOren eta UGTren aldeko botoagaz, estatuko Fundación Laboral de Prevención de Riesgos Laborales-i diru funtsak eskatzea erabaki du. Diru hori EAEko Lan-Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateek pilatzen dituzten soberakinak dira, eta, beraz, kotizazio sozialetatik datoz. ELAk, baina baita orain arte Osalaneko Batzorde Orokorrak eta Jaurlaritzak berak ere, beste irizpide bat mantentzen du: diru hori zuzenean ipini behar da EAEko erakundearen esku, Fundazioak 'leihatila' horretara jo gabe. Gaurko Osalaneko estrategiaz diru publiko hori onartzearekin funtsak banatzeko beste eredu bat ezarriko da: Patronala eta estatu mailako sindikatuak finantzatzeko modua dakarren eredu, alegia. Hau da, "elkarrikeria soziala" deritzenaren ereduaren menpe jartzen da lan osasuna EAEn. Eta, gainera, bertoko gutxiengo sindikalarekin adostutako eredu da. Hau guztia Estatuko ereditutik dator, eta beste pausu bat da herri hau espainolizatzeko arlo sozio laborarri dagokionez, lan osasunagaz jolastuz. Eta bitartean, Berriatuan beste langile bat hil da hilabete honetan...

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

A Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología
108. Likargokidea

KULTURA>



MUSIKA> EMANALDIA

Elkano Browning Cream taldearen bigarren lana zuzenean

Mikel Azpiroz, Franck Mantegari eta Matt Harding musikariek osatzen dute Elkano Browning Cream hirukotearen emanaldia dakar egunean, uztailearen 15ean, 20:30ean, Uda Kalean Bizi emanaldi kulturalen egitarauak Durango Museoko parkera.

Hammond organua, teklatuak, programatzailea eta sintetizadoreak baliatzen ditu lehenago Lau Behi taldean eta Fermin Muguruzagaz ibilitako Azpiroz pianista donostiarrak; bateria eta perkusioa jotzendu Alpha Blondy, Saint Germain edo Massive Attack taldeekin jardundako Mantegari musikari frantsesak; gitarra jotzen eta kantuan, berriz, Harding estatubatuarrek osatzen du Elkano Browning Cream hirukotea.

Talde bakoitza jatorri batekoa izan arren, musikaren lengoia unibertsalaren bidezko komunikazio oso indartsua eta naturala osatzen dute Elkano Browning Cream taldeko musikariek. Orain bost urte elkar ezagutu eta AEBetan sortu zuten mendebaldeko musika eta eragin afrikar, latino zein ekialdekoak uztartzen dituen hirukotea.

Bigarren diskoa

Aurten kaleratu duten eta egunean Durangon zuzenean eskainiko duten bigarren diskoan ere erritmo jostagarri, dantzagarri eta kutsakorrak bildu dituzte. Mamusik disketeagaz kaleratu dute *Elkano Browning Cream 2*, eta uztailearen 15ean, Museoko lorategian erakutsiko dute. ■ I.E.

12 Kepa Aginakoren 14 argazki

Durango ArtLeku gunean, uztailean eta abuztuan zehar izango dira ikusgai Kepa Aginakok Bartzelonako La Mina auzoan egindako zuri-beltzeko argazkiak.



13

Galsene Warriorz taldeagaz

Justiziaren, errespetuaren eta bakearen aldeko aldarria hip-hoparen bitartez egiten duten Senegal eta Durangaldeko musikariek elkarrizketa.

MUSIKA > EMANALDIAK

Anari eta Amparo Sanchez Musikaireko bigarren astean

Emakume biren ahotsa eta musika Elorrioko airean, gaur eta bihar

Orain 13 urte Amparanoia talde sortuzuen Amparo Sanchezek bakarka kaleratu duen lehenengo diskoaren, *Tucson-Habana* izenekoaren, aurkezpena da Musikaire jaialdiaren barruan, bihar 22:30ean hasita, Elorrioko plazan bertatik bertara duguna.

jazz, bolero, blues eta son doinuak dakartza Amparo Sánchezek

“Barne bidaia bat”, bakarkako lehenengo diskoa grabatzeko Amparo Sanchezek berak egindakoaren parekoa ei da abeslariari entzuleei proposatuko diena; Estatu Batuetako Arizonako basamortuan hasi eta Kubaraino eramango gaituena. Bidean, troba zahararen, jazzaren, boleroaren, bluesaren eta sonaren eragina, ahots indartsu bat eta musikari bikainak topatuko ditugu Elorrion.

Kaki Arkarazo gitarragaz, Oscar Ferret pianoan, Jose A. Varona tronpetagaz, Carlos Falanga txeloagaz eta Jordi Mestres kon-

trabaxuagaz izango ditu Amparo Sanchezek Musikaire lagun.

Emakumezko ahots eta musikaz beteriko Musikaireko asteburu honetako lehenengo emanaldia Argiñetan da, gaur gauean: *Irlaizan* diskoan kaleratutako kantetako berba eta doinuen aurkezpena egingo du, uztailaren 9an, Anari azkotiarrek Elorrion. ■ I.E.

Emakumezko ahots bi gaur eta bihar Elorrioko Musikairen gozagai



ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

Kepa Aginako argazkilariak Bartzelonako La Mina auzoan hartutako irudiak

Uztailean eta abuztuan daude Aginakoren argazkiak Durangoko ArtLeku gunean ikusgai

Fotokazetaritza Bartzelonan eta Argazkigintza Artistikoa Gasteizen ikasi zituen Kepa Aginako argazkilariaren lanen bilduma dago Durangoko alde zaharreko ArtLeku gunean datozen hilabete bietan ikusgai. Orain urtebete Durangoko Komentu kalean bere argazkidenda zabaldu zuen argazkilari gazteak 2008an Bartzelonako La Mina auzoan egindakoak

dira erakusketako 14 argazkiak; jito familiekin astebetean La Mina auzoan lan eginda atera zituen zuri-beltzeko argazkiok Aginakok, argazki erreportajea osatuz.

Azaldu digunez, hiriko paisaien argazkiak koloretan egiteko joera duen arren, hiriko bizilagunak agertzen dituzten irudiak zuri-beltzean jasotzen ditu gehienetan; aurpegietan islatzen diren sako-

neko esanahiak kolore deigarriak ostendu ez ditzaten, behar bada. Kasu honetan, zuri-beltzean, bere gordinetan ikusten da Bartzelonako kultur aniztasuna eta gizarte egoera irudiotan.

Pinturak, literaturak eta orain argazkigintzak ere bere lekua duen Durangoko ArtLeku eskolan atondu duten erakusketarako espazioan dago uztaile eta abuztuan, beraz, Kepa Aginakoren bakarkako lehenengo erakusketa: gizarte egoera eta errealitate baten erakusle diren argazkiak biltzen dituzten lanen erakusketa. ■ I.E.

Zuri-beltzean lantzen ditu erretratuak Aginako argazkilariak



GEURE DURANGALDEA



Gorriak eta laranjak

Fernan Ruiz Berbaroko kidea

Makuluagaz ikusi nuen paseoan gure eskualdeko paraje ederrean. Ordura arte ikusi barik neukan horrela. Etsiaren irudia etorri zitzaidan gogora. Bera ezagutuko ez banu, akaso; baina ez zegoen inondik inora etsita, indarrez ahul baino. Betiko ezer ez dagoela gogorazizidan, baina zalantzak zituen. Izan ere, “*Caudilloaren* jarraitzaile amorratuak oraindik ondo bizirik daude, kiratsa darie...” zioen.

Ahaztuta dauzka gaztetako abentura eta bizipen asko, baina ondo gordeta eta, era berean, bizi-bizi du euskara.

Kalekumea da eta orain han dago, asfaltotik eta gasolio zikinetik urrun, mundutik apartatuta gure eskualdeko paraje ederrean. Telebistatik ez duela ikusten aitortu zidan, irratia zalea dela. Eta ez da aspertzen.

Adin batetik aurrera makuluaren beharraz eta haren laguntasunaz ari zitzaidan, lagun makuluaz eta makulu lagunaz... eta gero lagunaz.

Berriketan jarraitu genuen, eta alerta egoera dagoela iragarrita eta kontuz ibiltzeko, euriteak lehen ere kalte ikaragarriak egin zituen eta. Meteosat satelitea aipatu zuen, hari esker eguraldiaren gorabehera guztien berri izan dezakegu zehaztasun handiz. Larritasunaren arabera alerta egoera gorria, laranja edo horia izan daiteke. Klima kontuak aipatuz, geure artean bizi dugunari gorria deritzo, sateliteak antzik eman ezin dion arren. Negu gorria igarota, udaberria laranjagoa izango zelakoan, uda ere gorri iritsi zaigu; izan ere, eskualdean makina bat lagun dabil gorriak ikusten, eurretako asko entusiasmo patologikoak jota. Espainia ei dugu behar. Haatik, uztaile amaitu orduko, apur bat baino ez bada ere, gorriaren bizi hori laranjatuko zaigula uste du. Pirinioak lekuko.

Uda alertan –gorri, laranja edo hori– pasatu beharko dugu; erne edozelan ere. Gorria bada are gehiago, jakina, sasoi batean kolore horrek enbarazu handiak eragin zizkion eta askori. Neuri ere bai.

MUSIKA >

‘Amaraunak’ lehenengo lan luzea aurkeztu du Xarmak

Orain hiru urte, 2007an, Keike taldearen azken kontzertuak ematen zebiltzala forma hartzen joan zen Xarma taldearen lehenengo lana entzungai dugu *Amaraunak* izenagaz kaleratu duten diskoan. Iazko udan, Tolosako Bonberenea estudioan, Karlos Osinagaren gidaritzapean ekin zioten iraupen luze euren lehenengo diskoa grabatzeari Xarma osatzen duten Joshua Froufe eta Christian Martin berriztarrek, eta aurretik Keike taldeagaz jardun zuten Jon Kirruk eta Itsasok.

Rocka oinarri duten 12 kanta bildu dituzte ‘Amaraunak’-en

Oinarria rocka duten abidura anitzeko dozena bat kanta daude diskoan bilduta. Rock doinuez gainera, metal eta pop zerteladak ere eman dizkiote Xarmakoek, eta kritika sozial eta politikoa zein bestelako gogoeak biltzen dituzten kantetan.

Laukote moduan 2008tik dabil Xarma taldea, eta formazio horregaz irabazi zuten Bilbovision-en hirugarren saria. ■ I.E.

LITERATURA >

Sarrionandiaren ‘Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako’ lana

Euskal hezkuntzaren eragile guztientzako informazio, eztabaida eta elkargunea den Hik Hasi elkarteak argitaratu du Joseba Sarrionandiak idatzitako *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* liburua. Eskolan “hausnarketa sustatzeko eta pentsamenduari autonomia eta ikuspegi kritiko lantzeko” oso aproposak diren 133 ipuin eta marrazki osatutako liburua da, argitaratzaileek azpimarratu dutenez.

Irakurleak gozatu ditzan sortutakoak dira Joseba Sarrionandiak idatzitako liburuan irakurgai ditugun ipuinak. Imajinario handiagaz, fantasiaren munduan bidaiatzera eta protagonistaren tokian jartzera gonbidatzen gaitu liburuan egileak, errealitatea, absurdoa eta umorea uztartuz. Eztabaidari bidea zabaltzen eta irakurle pentsarazi zein ondorioak ateratzera bideratzen duten ipuinak bilduta daude liburu honen orrietan. ■ I.E.

Eskolan baliatzeko liburu aproposa dela azaldu zuten

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Galsene Warriorz: Muga eta hesi guztiak apurtzea da gure helburua



www.myspace.com/galsenewarriorz

Iditu Recordseko entsegu lokaletako batean batzen da **Galsene Warriors** taldea; bertan elkartu gara eurekin. **Hip-haf**-a egiten dutela diote, hip-hopak sarritan zabaltzen duen mezu hutsaletik aldentuta, errealitate gordinari buruzko letrak dira eurenak: taldekide gehienek jatorri afrikarra ahaztu barik, azken urteetan bizi diren gizarteagazko hartu-emanerako bide legez ikusten dute musika. Kantetako berbekin borrokatu gura dituzte Dougoutigui, Hamds, B.A.B eta Itsuak euren ideiak: "Poesiagaz iraultza egiteko".

Taldekide biren elkarlanetik sortutako diska kaleratu berri duzue asteon.

Bai, 300 ale atera ditugu, eta aste honetan jaso. Talde guztia-
ren lana grabatzen hasi ginen,
eta abeslari bi, koruak etab. sar-
tzeko denbora gehiago behar
genuenez, bitartean taldekide
biok sortu genuena ere graba-
tzea erabaki genuen. Azken lan
hau atera da taldekide guztiena
baino lehenago azkenean.

Zelan sortzen dituzue kantak?

Normalean asteen bitan-edo
batzen gara, Itsuak sortu duen
musika oinarriak ekartzen ditu
etxetik, eta guztiok egiten ditu-
gu ekarpenak. Ondoren, gaine-
rako taldekideok egiten ditugu
letrak. Zuzenekoetan gu igotzen
garen arren oholtzara, taldea
lagun gehiagok osatzen dugu:

"Lanera joateko
goizeko seietan
jaikitzen diren guztiei
buruz dihardugu"

"Irainak baino
gehiago, adimena,
burmuina da
hip-hopa"

hamaika lagun gara guztira, eta
denek laguntzen dute, bakoitzak
bere ideia eta berbekin.

Eta hamarren artean egiten dituzue, beraz, letrak?

Bai, denok elkarrekin egiten ditu-
gu letren gaineko kritikak. Gu aur-
pegia gara baina burmuina talde-
kide guztiok. Letra da Galsene
Warriorz taldean inportanteena.
Asko lantzen ditugu letrak, ez ditu-
gu letra hutsalak egin gura.

Zer gairi buruz egiten duzue zuen kantetan berba?

Batez ere, eguneroko gauzez idaz-
ten dugu; niri, zuri eta hari gerta-
tzen zaionari buruz. Lanerako goi-
zoko seietan jaiki behar duten
guztiek buruz dihardugu. Afrika-
rrak aldarrikapenerako daukan
bide bakarra da musika; izan hip-
hopa edo beste edozer. Denok

daroagu barruan. Nik ezin dut
luxuari buruz kantatu; ni sene-
galdarra, afrikarra naiz, eta nire
errealitatea erakutsi gura dut.
Gure errealitatea bizi ez dute-
nentzat ere egiten dugu, ez dugu
mugarik eraikitzeke asmorik.
Sentimendua da musika, eta
zabalik gaude elkarlanerako.

Aurretik zer esperientzia duzue musikaren alorrean?

Itsua: Orain urte pilo hasi nin-
tzen ni musikan, punk talde
batean lehenengo, heavya egiten
gero, elektronikara edo jazzera
gerturatu nintzen ondoren... Hip-
hopean Ade+Flow taldean jar-
dun nuen, desegin zen arte.

Senegalen, beste esperientziarik izan zenuten taldeetan?

Bai, guztiok ibili gara beste
proiektu batzuetan. B.A.B. da

denbora gehien daramana, eta
gure taldea sortzea bideratu zue-
na. Bera da jefea. Jaio ginenetik
bizi dugu hip-hop, gure herrial-
dean daukaguna delako. Urte
askoko esperientzia dugu Sene-
galen: Dakar kapitalean bakarrik,
3.000 rap talde zenbatu zituzten
orain hamar urte inguru. Gu
gatozena lako auzoetako edo-
nork dauka aukera mikroa har-
tu eta kantatzeko. Gure bizia da.
Hemengo hip-hoperoei igartzen
dieguna *yankilandiara* begira
egote hori da; hemengo kultu-
ra aberatsean sakondu barik,
itxurak egiten ibiltzea...

Zer hizkuntzatan idazten eta esaten dituzue letrak?

Senegalen daukagun abantaila-
tako bat hainbat hizkuntzatan
kanta dezakegula da: ingeles, frantsesa, gaztelera... Gure hiz-
kuntza, gainera, oso soinu gogo-
rrekoa da, eta oso ondo lotzen du
rapagaz. Errima bat egiterakoan,
baina, hizkuntza batetik bestera
goaz askotan. Erabiltzen duzun
hizkuntza baino garrantzitsuagoa
da gure ustez, baina, transmiti-
tzen duzun energia eta jarrera.

Garrantzia handia ematen diozue taldearen filosofiari. Zein da ba filosofia hori?

Emigratu beharrendaren ondorioz,
urteak daramatzagu hemen, eta
asmoa gure herriagatik zerbait
egitea da; munduari erakutsi gura
diogu gure herria ez dela sufri-
mendua bakarrik, adimena ere
bagarela. Afrikak ez du orain arte-
ko historiako iraultzetan parte
hartu, eta guk defendatzen dugu-
na da Afrikan egingo dugula lau-
garren iraultza: kulturala. Ez da
odol tanta bat bera ere isuriko, eta
errespetua izango da guztiaren
oinarria. Berdintasunaren eta
errespetuaren garaia dator.

Ez zatozte bat hip-hoperoaren irudi zabalduenagaz...

Batzuetan nazka ematen digute
hip-hoperoek, ez direlako bene-
takoak: euren esanak eta ekintzak
ez datozelako bat. Kantatzen
duguna izan gura dugu guk. Errea-
litatea aldatzeko, ezelako politi-
kariren zain egon barik, kaleko
jendearen indarrean sinesten
dugu. Poesia eta iraultza dira gure
apustua. Irainak baino gehiago,
adimena, burmuina da hip-
hopa: egiten duguna ez da ume-
mokoentzako musika. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

Gau Elektronikoa
UZTAILAK 10
22:00etan

XI. GAU ELEKTRIKOA
Sarrera: 10euro (5e + flyer).

CLOSING PARTY SUMMER 2010
IKER UNDERSOUND + RUBEN COSTAS + OLAIZOL

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

MUCHAS NOCHES, BUENAS GRACIAS
Le Petit Cabaret
Ezkurdi plaza
Uztailak 10 • 20:00

ELKANO BROWNING CREAM
Etxezarreta parkea
Uztailak 15 • 20:30

UDA KALEAN BIZI 2010

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11.04 601 07 76 Artekale, 14 DURANGO

Dima Golf: Egunpasararako plan berezia eta paregabekoa



Oraindik ez duzu Dima Golf ezagutzen? Otxandiotik hiru km-ra adin eta poltsiko guztientzako moduko zelaia dago. Bertan, Pitch & Putt modalitatea praktikatzen da, golfean baino distantzia laburragoekin eta arau errazagoekin. Kirola, aisia, gastronomia eta natura batzen ditu plan berritzaile honek.

Golfa zure neurrira egokitzen da hemen, prezio eta joko aldetik

Lapurriketan, Dima eta Otxandio artean, kokatzen da Dima Golf Pitch & Putt gunea. Golfa jende konkretu batentzako egin dagoenaren ustea ezeztatzen da hemen; izan ere, golfa zure neurrira egokitzen da. Dibertsioa oinarri, ingurune eder batean Pitch & Putt jokoan aritzeko aukera ematen du gune honek. 18 zulo ditu bertako zelaiak, baina pilota mugitu beharreko distantzia 40 eta 120 metro bitartekoa da.

Natura, kirola eta gastronomia

Kantauri aldeko Pitch & Putt zelai zabalena da Lapurriketako. Ibilbidean zehar, sagarondoak hurretik ikusteko aukera

dago, naturagaz hartu-eman zuzenean. Hain zuzen ere, sagardotegia ere badago eremu honetan; beraz, gastronomia batzen zaio geroago eta zale gehiago dituen kirol honi.

Familia, lagun edo lankideentzako plana

Durangaldeko biztanleentzat aisialdirako aukera berria sortu da Dima Golfekin. Durangotik, 15 minutu behar dira bertara heltzeko, eta egunpasa bikaina egin daiteke familia, lagun eta lankideekin.

Familia osoarentzako, adibidez, eskaintza interesgarria du Dima Golfek. Haurrak kirolagaz eta naturagaz kontaktuan ipintzeko tresna da, gurasoek

tabernan atseden har dezaketen bitartean; alderantziz, gurasoek praktikatzen duten artean, umeak kulunketan jolastu daitezke.

Lagun koadrilentzako, berriz, egunerokotasunetik irteko modua izan daiteke gune hau: aspaldian elkartzen ez diren lagunak, despedida baterako... eguna aprobetxatuz, zirkuitu osoa egin eta tartean bazkaldu egingo dugu, bertako sagardoa dastatuz, gainera. Enpresako irteera edo bazkaria egiteko ere balio du, lankideak giro lasaian elkartuz.

Gorantz doan egitasmoa

Plan osoa da, beraz, Dima Golfen aurkituko duguna. Kirol horretan hasi berriak direnek, gainera, erraztasun handia dute bai prezio aldetik bai laguntza aldetik; ikastaroak ere ematen dituzte.

Inauguratu berri dute ofizialki gune berezi hau, eta geroago eta jende gehiago hurreratzen dabil bertara. Egitasmo berritzailea da, beste inon aurkitu ezin daitekeena.

Durangaldeko biztanleentzat aisialdirako aukera berria sortu da

Egitasmo berritzailea da, beste inon aurkitu ezin daitekeena

PILOTARIAK
 BUSKAL D'AK
 K'ALEKO ZINEMA JOSELU ANAFAN
 DANBORRADA
 DUTG'ARRIAK
 ESNE BELTZA
 OTXANDIO
 TXISTUARIAK
 SAN MARTIN
 SOKAMUTURRA
 BERTSOLARIAK
 MONADA
 ANTZERKIA
 TRIKIZIO
 TXARANGA

UZTAILAK 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24 ETA 25
OTXANDIOKO
JAIAK 2010

anboto

*Santamaña
 jai zoriontsuak
 opa deutsueguz!*

Otxandio Udalak

Otxandioko JAI EGITARAUA

UZTAILAK 16, BARIKUA

20:30 Bertso desafioa plazan: ARABA (ARAMAIO) VS BIZKAIA (IURRETA)

Bertsolariak: Aramaiotik Manex Agirrek, Andere Arriolabengoak, Xabi Igoa eta Iker Agirrek jardungo dute bertsoan eta lurretatik berriz, Eneko Abasolo "Abarkas", Gorka Lazkano, Ander Salaberria eta Ander Duñabeitiak. Gai jartzaila: Kristina Mardaraz Ondoren, luntx herrikoia plazan (doan izango da)

UZTAILAK 17, ZAPATUA

14:30 Gazte Bazkaria (Parrillada)

17:00 Gazteen arteko olinpiadak

18:30 Kalejira herriko txistulariekin

19:30 Ohiko 'Salve Regina' abestuko dute Santa Maña elizan

20:00 Otxandioko presoeren eskubideen aldeko elkarretaratzea herriko plazan, presoeren eskubideen aldeko udal batzordeak deiturik.

21:00 Txupinazoa: Urduri dantza taldearen 50. urteurrena dela-eta, dantzariak botako dute txupina.

21:05 Danborrada Otxandioko musika bandarekin batera

23:30 Trikizio musika taldea

01:00 Euskal Herritarrek eginiko musika beltzaz gozatzeko aukera Esne Beltza taldearen kontzertuarekin

Berbena Trikizio musika taldearen eskutik

UZTAILAK 18, DOMEKA: SANTAMAÑA EGUNA

11:30 Kalejira herriko bandarekin.

12:00 Meza nagusia Santa Marinaren omenez, Oihandi abesbatzaren parte-hartzearekin.

12:30 Kalejira txistulariekin.

13:00 Urduri dantza taldearen ekitaldia.

17:45 Pilota partiduak Mainondoko frontoian. (doan izango da)

Kadeteak: Etxebarria-Urrejola

Ziarrusta-Ocerin. Gero, Mikel Goñi-Gonzalo Velasco Fernando Arretxe-Arturo Arbizu

20:00 Iñaki Plazak eta Ion Garmendiak '20 Hatz Proiekt' izeneko ikuskizuna eskainiko dute plazan.

23:30 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearen eskutik.

UZTAILAK 19, ASTELEHENA HAURREN EGUNA

11:00 Patata Tortilla Txapelketa plazan

11:00 Umeentzako parkea: puzgarriak, roller patinak, trikkeak eta zapata saltariak, bi gurpileko ibilgailuen zirkuitua...

12:00 Iluntxo pilota eskolaren partiduak

12:30 Arimen meza

17:30 Poxpolo Ta Konpainia pailazo taldearen 'Segi jotzen' ikuskizun berria

20:00 Hortzmuga antzerki taldeak 'Olympikas 2012' izeneko obra eskainiko du, gazte eta helduentzat, plazan

UZTAILAK 20, MARTITZENA

22:00 Gazte Asanbladak antolatuta, gazte eta helduentzako pelikula plazan (eguraldi txarra eginez gero, Gaztetxean izango da)

UZTAILAK 21, EGUAZTENA

22:00 Gazte Asanbladak antolatuta, urmeentzako pelikula plazan (eguraldi txarra eginez gero, Gaztetxean izango da)

UZTAILAK 22, EGUENA

*Egun guztian zehar nagusien egoitza zabalik egongo da, bertako instalazioak bisitatu eta eskaintzen diren zerbitzuen inguruko informazioa emateko

19:30 Nagusien egoitzako instalazioetatik bisita gidatua. Udalak eta egoitzako arduradunek instalazioen ezaugarriak eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak azalduko dituzte. Bukaeran luntx txiki bat egongo da.

22:00 Gazte Asanbladak antolatuta, gazte eta helduentzako pelikula plazan (eguraldi txarra eginez gero, Gaztetxean izango da)

UZTAILAK 23, BARIKUA

19:30 Oihandi abesbatzaren ekitaldia elizan.

UZTAILAK 24, ZAPATUA SAN MARTIN EGUNA

09:00 Arrantza Txapelketa Mataderoan

10:00 Tiro al Plato txapelketa

12:00 Otxandioko Bandaren kalejira

12:30 Meza San Martinen

13:30 Txistulariekin San Martinera

14:00 San Martinen paella txapelketa, bolaleku berrituan bolo txapelketa, trikitaliak...

19:45 Gasteizko Akelarre txarangak herriko bazterrak alaituko ditu

23:30 Kontzertuak Damba eta Amaiur taldeen eskutik

UZTAILAK 25, DOMEKA

07:30 Diana eta kalejira

08:00 Sokamuturra

13:15 Omenaldia 1936. urtean izandako bonbardaketan hildakoei, Andikona plazan.

13:45 Ohiko limonada plaza nagusian.

17:00 Tute, Mus eta Briska Txapelketa

18:00 Herri-kirolak plaza nagusian:

Badaiotz emakumeen herri-kirol taldeak Iparraldeko joko, sokatira eta aizkolariaren ikuskizuna eskainiko du

23:00 Berbena Orotz taldearekin

01:30 'Agur Santa Marina' abestiarekin jaietako amaiera emango zaie.



danoena
taberna
jai zoriontsuak denoi
plaza nagusia 5. OTXANDIO Tel.: 945 45 02 48

Gure etxea
jatetxea
eguneko menua eta karta
Urigoiena 13 - 945 45 02 00 - otxandio

KOSKA
TABERNA
Tel: 945 46 14 80
Plaza Nagusia, 6
OTXANDIO

Haitz taberna
Artekale 32 Tel.: 945 46 14 26
OTXANDIO

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaila:

Dantzarien pregoiaz, jai giroa martxan

Urduri dantza taldeak botako du txupinazoa, bere 50. urtemugan

Urduri dantza taldeak 50. urtemuga bete duela gogoan hartuko dute herritarrek jaietan. Urduriko dantzariak dira uztailaren 17ko txupinazoa jaurtizeko arduradunak. Taldekideek proposamena pozik hartu dute: "Ohore bat da. Normala iritzi genion 50. urtemuga izanda eta horrenbeste jende batu izan duen taldea izanda. Jende horrentzako omenaldi legez ikusi dugu", dio Ainhoa Lasuen taldekideak. Hainbat belaunaldi ordezkatu dituzten pertsonak txupinazoa jaurtizera igotzea gura dute. Taldeak antolatutako jai egunean idatzi bat plazaratu zuten, eta pregoia horren adierazpen bat izango dela aurreratu digute Urduri taldekoek. Duela aste batzuk mende erdiko ibilbidea gogoan hartzeko egun osoko jai antolatu zuten. "Eguna oso ondo joan zen.



Asanbladak antolatuta, gazte eta helduentzako pelikulak uztailaren 20, 21 eta 22an proiektatu dituzte plazan. Txistulariekin, San Martinera joango dira uztailaren 24an. Paella txapelketa eta bolaleku berrituan bolo txapelketa eta trikitaliak izango dira. Andikona pla-

zak uztailaren 25ean 1936an bonbardaketan hildakoen omenaldia hartuko du. Ondoren, limonada banatuko dute plaza nagusian. Orotz taldeagaz erromerian dantza egin ondoren, 'Agur Santa Marina' abestiagaz otxandiarrak jai amaiera emango diete.

Txupinazoa botatzera belaunaldi bakoitzeko ordezkari izango diren pertsonak igotzea gura dute taldean

Dantzariak 250 bildu ginen, eta beste asko laguntzen", diote taldekoek. Talde zaharretakoak entseguetan ibili ziren, eta giro polita izan da. Umeen artean, gaur egun, 65-70 dantzari daude. Taldearen 50. urteurren egitaraua biribiltzeko balioko duela txupinazoak iritzi diote taldean. Urduriren ibilbidean 500 lagun inguru ibili da dantzan. Danborrada eskainiko du, jarraian, Otxandioko musika bandak.

Ohiko 'Salve Regina' abestuko dute uztailaren 17an 19:30ean, Santa Marina elizan. Meza nagusia, Santa Marinaren omenez, uztailaren 18an eskainiko dute, Ohiandi abesbatzaren parte-hartzeagaz. Gazte

Arretxe eta Goñi parez pare

Aurreko koadroetan tiki-taka erabiliko dute pilota biek

Uztailaren 18an pilota partidu interesgarriak antolatu dituzte, dohainik, Mainondoko frontoian. Nagusien partiduen aurretik gazte mailako bat jokatu dute: Etxebarriak eta Urrejolak Ziarrustaren eta Ocerinen kontra neurtuko dituzte indarrak.

Ondoren, bere sasoiari pilota enpresa handietan ibilitako pilotari bi lehiatuko dira aurreko koadroetan. Mikel Goñik Gonzalo Velasco izango du atzelari, eta Fernando Arretxek Arturo Arbizu.

Hilaren 19an ere pilota partiduekin gozatzeko aukera izango da. Hain zuzen

ere, Iluntxo pilota eskolako gazteak lehiatuko dira eguerdian.

Bestalde, uztailaren 25ean, Gasteizko Badaiotz emakumeen herri-kirol taldeak Iparraldeko joko, sokatira eta aizkolarien ikuskizuna eskainiko du, plaza nagusian.

Hilaren 25ean Badaiotz emakumeen herri-kirol elkarteak saio eskainiko du plazan

JAIONE AJURIA Tlf: 945461412
OTXANDIO - BIZKAIA 605771479

**KERISARA
BASERRIA**
NEKAZALTURISMOA

Jon Soloeta
Huri-Barrena jatetxea
Huribarrena kalea, 8
48210 Otxandio (Bizkaia)
Tel.: 945 45 01 25

Rosa Mari Estankoa egunkariak aldizkariak
Plaza Nagusia 9 Otxandio
Tel.: 945 45 00 33

Taberna LORA
ARTOKALE 16 Tel. 677 569 580 Otxandio

Jaiegunetan gerrialdeak dantzan

Otxandioko musika bandaren uztailaren 17ko emanaldiak zabalduko du jaien musika egitaraua: Urduri dantza taldeak txupinazoa bota ondoren danborrada eskainiko dute musika bandako musikariek. Jaien hasiera horretan, baina gauean, Trikizio taldearen eta Esne Beltza taldearen erritmo dantzagarriak ere ekariko dituzte Otxandiora.

Esne Beltza, Trikizio, Iñaki Plaza eta Ion Garmendia jai egitarauko proposamen musikalak

Uztailaren 18an, bestalde, Iñaki Plaza eta Ion Garmendia izango dira, 20:00etan, euren doinuak eskaintzen: perkusio erritmo bereziak zuzenean joko dituzte *20 hatz proiekt* diskoaren aurkezpenean. Ondoren, 23:30erako, Joselu Anaien eskutiko dantzaldiagaz itxiko da Santamaña eguneko egitaraua.

Uztailaren 23an, Oihandi abesbatza-aren ekitaldia eta Danba zein Amaiur taldeen emanaldiak izango dira.



Hordagoa bota dio Iurretak Aramaiori

Bertsotan lehiatuko dira bi herriak, hilaren 16an, 20:00etan



Aramaioko lau bertsolari lurretako beste lau bertsolarigaz lehiatuko dira, nor baino nor gehiago, Santamañetako lehenengo barikuan.

Iurretak bota zion hordagoa Aramaiori, Arabako Koadrilen Arteko Txapelketaren finalean. Arabarrek onartu eta erdibidean dagoen herria, Otxandio, aukeratu dute lehiaketa egiteko. Vulcano plazan egingo dute bertso desafioa, 20:00etan.

Aramaiotik Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre eta Xabi Igoak egingo dute bertsotan. Iurretako taldea, berriz, Eneko Abasolo "Abarkas", Gorka Lazkano, Ander Salaberria eta Ander Duñabeitiak osotuko dute.

Gaiak jartzen Lierni Altunak jardungo du. Bertsolariek era guztietako ariketetan abilak direla erakutsi beharko dute, eta taldeka koplak ere kantatu beharko dituzte.

Otxandion bi herriek jokatuko dutena hordagoaren joanekoa izango da. Bigarren lehiaketa baterako ere badaukate eguna ipinita. Iurretako taldeak itzulerakoa lurretan bertan egitea proposatu du; San Migel jaietan, irailaren 18an.

Hordagoa bota zuen Iurretak, eta Aramaiok lekua ipini. Bigarren buelta Iurretako San Migeletan egingo dute

KOROSTONDO
janari denda

Artekale 19 OTXANDIO Tel.: 945 45 00 94

ETXEBARRI NEKAZALTURISMOA

Antzinako jauregia. 6 logela bikoitz ditu bakoitza bainugela batekin, ile-lehorgailu eta telebistarekin, gela horietako bat ezinduentzako egokiturik dago. Apopiloentzako egongela, telebista eta mahai-jokoekin. Sukaldea eta garbigailua erabiltzeko eskubidea. Aparkamentua eta lorategia, barbakoa, mahai eta jesarlekuekin. Wi-fi a dohainik.

Olaeta • Otxandio (Bizkaia) • Tel.: 945 450 123 • Mug.: 676 94 75 23

Harategia **Gaztañeta** **U**rdaitegia

Artekale, 25 OTXANDIO - Bizkaia
Tel.: 945 45 08 46

Launa plus
Ondua

Bodegas Launa
Arabar Erroxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

anboto

Durangaldeko usaina ezin dizugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko, ...

www.anboto.org

anboto
komunikabideak

www.dimagolf.com klikatu eta informatu!

Oraindik Dima Golf ezagutu ezean, webgunean intereseko informazio guztia topatu daiteke. Alde batetik, jokoaren inguruko datuak eta Lapurriketan eskaintzen diren zerbitzu guztien ingurukoak azalzen dira, eta bestetik, bertako argazki eta bideo interesgarriak eskura daude. Modu honetan, Dima Golfeko paisaia eta ingurune aparta aurrez ezagutuko dugu.

Hona hemen eskuragarri dagoen informazioa:

- Pitch & Putt jokoaren nondik norakoak
- Instalazioen eskaintza
- Zerbitzuen azalpena
- Salneurriak
- Txapelketak
- Promozioak
- Multimedia euskarriak
- Kontaktua



Dastatu eta gozatu jatetxean

Pitch & Puttean jokatu gura duten guztiek, bertan indarrak berreskuratzeko aukera ederra daukate jatetxeari eskerrak. Produktu tradizionalaz gainera, Lapurriketako sagardoa dastatu ahal izango dute. Hain zuzen ere, aurrez jokoa ibilitako zelaietako sagarrondoaren uza probatu daiteke tabernan zein jatetxean.

Leku zabala du jatetxeak, eta horrek lagun talde handiak joateko aukera eskaintzen du. Menu normala, berezia eta karta eskaintzen dituzte.

Ikastaroak zapatuetan

Pitch & Puttean sakondu gura dutenentzat eta kirola ikasteko laguntza gura dutenentzat, ikastaroak antolatzen dituzte zapatuetan Dima Golfen, goizez zein arratsaldez. Jose Angel Ozaeta Sagastuy da eskolak ematen dituenak.

Txapelketak

Ohitura hartu dutenentzako, txapelketak antolatzen hasi dira Dima Golfen. Uztailaren 16an ere, adibidez, torneoak egingo dute, txuletada parte-hartzaile eta guzti.



Poltsikorako ere egokia den plana

Astialdirako plan desberdina aurkezten digu Dima Golfek. Gizartean, golfa kirol garestia dela zabaldua dago, baina Pitch & Putt jokoak ez digu plan garestia bultzatzen. Beste hainbat ekintzak suposatu diezagukeen kostuaren antzekoa edo kasu askotan gutxiago suposatuko digu. Jokatu gura denaren arabera prezioa aldatzen da, baina hiru eurogaz praktikak hasi daitezke, eta joko luze batek ez du 10 euroko prezioa igarotzen. (Prezio eta bonoak www.dimagolf.com-en ikusgai).

Ingurunea

Ez dago edozelako lekuan Dima Golf eremua. Sagarrondoak, larreak, basoa, erreka... Ingurune ederrean murgilduko gara Pitch & Puttean. Gainera, nekazaritza ustiapena errespetatzen da bertan.

Urkiola eta Gorbeiaiko parke naturalen artean kokatuta, lasaitasuna bermatzen duen lekua da Lapurriketako.

IRITZIA >

Gutunak  @

Batzokian "izaeradun zukaldaritza"

Joan den barikuan Durangoko Batzokiaren aurretik nindoa-la eguneroko menua iragartzeko daukien kartelari erreparatu neutsan: "Cocina con alma" dio. "Euskarara itzuli ete dabe?", pasatu jatan burutik. Bi pausu atzera egin eta kartela irakurtzeari ekin neutsan, eta hara non ikusten dodan "Izaeradun" (ondo!) "zukaldaritza" (ai ene!).

Poltsan beti errotuladoreren bat daroadanez, hartu eta 'S' haundi bat idatzi neban 'Z'-ren gainean; gero Batzokira sartu eta egindakoa kontatu neutsan zerbitzariari. Hasierako sustoa pasatu jakonean, kanpora irten ginin biok kartela ikustera. Bere komentario bakarra hauxe izan zin: "Pero eso viene así de fábrica".

Amen.

Orain errotuladore gorria daroat aldean, beltza beltzaren gainean gitxi igartzen dalako.

Hamar bat minutu behar izan nituen sukaldaritza zelan idazten den badakien 7 urteko alabaren "zergatik, zergaitik eta zergaitik?" erantzuteko.

Elixabete Larrinaga Artetxe - Durango

Abadiñoako Udalari

Zelaietako guraso talde batek bere desadostasuna adierazi nahi du Abadiñoako Udalak hartu duen erabaki baten inguruan.

Berez txikia geratzen ari den Zelaieta eskolako parkean, eskolazainaren etxetik eskola ondoko etxeraino udalak hesi bat jarri du, bere esanetan "jabetza pribatu bat babesteko".

Badirudi eskola ondora bizitzera etorri den auzokoren bat luzaroan kexaka ibili dela eskolako umeen portaeragatik, oihuengatik, ikusiagatik... eta Udalak hartu duen konponbidea da eskolari lur zati bat kentzea umeak auzoko honengan-dik urruntzeko.

Kendutako lur zati horrek berdeguneko ia %22 suposatzen du; hau da, 1.400 m2 bazeuden, orain 300 m2 gutxiago ditu. Kendutako berdegune horretan lehen hezkuntzako ikasleek erabiltzen duten lorategi botaniko bat dago.

Kontutan hartu behar da urterik urte eskolako ikasle kopurua gora doala ere, eta jolasteko dagoen lur eremua ez dela gehitzen; kasu honetan gutxitu, hain zuzen.

Gure ustez, udal baten beharra jabetza publikoa zaintzea, mantentzea eta errespetatzea da, guztion gozamenarako eta onurarako, guztion kontribuzioekin eskuratutako ondasunak baitira.

Bestalde, egia da pertsona guztien segurtasuna bermatu behar dela, eta behar diren neurri egokiak hartu arazoz egon ez dadin.

Jakin badakigu arazoak ez duela konponbide erraza, baina hartutako bidea baino soluzio hobekak badaudela iruditzen zaigu, beti ere guztion eskubideak (eskolako umeenak eta inguruko jabetza pribatudenak) bermatu asmoz.

Orain arteko hesia indartzea, aldatzea izango litzateke konponbide bat, panela edo beste edozer jarriz.

Eta bestela arazoan inplikaturik daudenak elkartu eta konponbide egokia bilatu, arazoak hitz egiten konpontzen direlako eta ez alkateak esaten duelako.

Guraso talde bat

kolaborazioa



Idoia Agorria
PSE-EE

Demagogiarik eta elektoralismorik gabe

EAJ-PNVk "demagogiarik eta elektoralismorik gabe" aurkeztu zuen Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantzari egindako aldaketa, PSE-EEk aurkeztutako mozioaren aurkako botoa eman eta hurrengo egunean. PSE-EEren mozioa txirindularien Sigi-saga elkarteak eta motozaleen Más Curvas elkarteak bultzatu zuten, udalerrian dauden seinale horizontalak zuzentzeko asmoz. Mozioa onurarriaz, eta gainerako alderdiek horrela ulertu zuten, mozioaren helburua bide-segurtasuna hobetzea baitzen.

Egun batzuk lehenago, mozioaren berri eman genien, udaleko alderdi guztiei bezala, euren ekarpenak jasoz zitaten; baina, hala ere, ez ziguten ezer esan. Ez dugu hori ulertzen, eta, era berean, ez dugu ulertzen zer dela eta ez zuten euren botoa azaldu udalbatzaren osoko bilkuran. Udallerria akatsez, zuloz eta gaizki -bi koloretan- margotutako zebrabidez beterik dago; hori arriskutsua da bizikletaz edo motoz ibiliz gero, eroririk baikara, izan dugun esperientziagogoan izanda. Gure ustez, udalak era egokian zaindu behar ditu galtzadak eta seinaleak, eta zergen bidez kobratzen ari den zerbitzua eman behar du.

Tamalgaria da diru publikoa zebrabideak margotzeko erabiltzea, Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 168. artikuluan dioena betegabe. Izan ere, artikulua horren arabera, "ezin da beste kolore batzuetako lerrorik erabili, lerro zuriekin txandakatuta". Artikulu horri jarraiki, udalerrian dauden zebrabide gehienek ez dute legea betetzen. Hurrengo egunean egindako prentsaurrekoan eman zuten arazoibidea, eta irregulartasunak izan zitezkeela aipatu zuten.

Bide-segurtasunak kezkatzeko gaitu, eta, gure ustez, gogoan izan behar dugu beti, Udalean hartzen ditugun neurri guztietan. Hargatik, Ordenantza irakurri eta bete behar dugu "demagogiarik edo elektoralismorik gabe"; eta horrelaxe eskatzen diogu alkateari.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten ize-
nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko uztailaren 7a - 9. urtea - 381 zk.

Laguntzailea:



Honako herrietako udalak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta

Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso

eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Ana Domínguez, Kepa

Aginako eta Juanra de la Cruz.



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

DOAKO FINANTZIAZIOA

BAUTISTA BEHERAPENAK

Orain, zure diruak gehiago balio du



www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Amaia Zalba
- Parafarmazia dauka Durangon

Bola txinatarrak

Durangoko Amaia Parafarmazian zoru pelbikoa indartzeko bola txinatarrak aurkitu daitezke.

Zertarako balio dute bola txinatarrak?

Bola txinatarrakin kegel ariketak egiten dira, zoru pelbikoa indartzen dutenak. Horrela gernu jarioak izatea edo prolapsio pelbikoak ekidin daitezke.

Zelakoak dira bola horiek?

Hainbat tamaina eta pisuko bolak dira. Silikonazkoak edo kristalezkoak aurkitu daitezke. Azken hauek silikonazkoak baino tamaina txikiagoa daukate, ia erdia. Baina garestiagoak dira. Silikonazkoek 18 euro inguru balio dute; kristalezkoek, berriz, 49 bat euro.

Norentzat da aproposa?

Ama diren 40 urtetik gorako emakumeek erabiltzeko aproposa dira. Txiza egiten zabiltzan bitartean txiza eteteko arazoak dituztenentzat ere, bola txinatarrak erabiltzea gomendagarria da.

Zelan erabiltzen dira?

Hasiera batean, bolak ordu betez izatea gomendatzen da jesari barik, adibidez, etxeko lanak egiten zabiltzan bitartean. Horrela ohitzen zoazelako. Pelbisaren muskulatura biguna bada, pisu gutxiago duten bolak erabili behar dira. Gainera, bolak sartzeko labingarri normalak edo indartzeko eta muskulatura ixteko labingarriak daude.



ZUTOIA
ileapaindegia

- Tratamendu kapilarra
- Estentzioak
- Unisex
- Solorium bertikala

ORDUTEGIAK: asteartea-barikua: 9:00-19:00 • zapatua 7:30-14:30
Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18



iunik ileapaindegia

asteleheneik asteazkenera
10:00-21:00

osteguna eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Estetika Zentroak



Parafarmazia Dietetika
Amaia

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiek

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIO-beroa eta epela •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izerrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKU-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

KIROLAK >



Garain oraintsu sortu duten triatloi taldeak badu Arratiako zekor ezagunetik apur bat. Gaur egun, triatloi talde bat duen Bizkaiko herririk txikienekoak dira, eta badakite baliabide mugatuak dituztela. Baina kantitatez 'txikerrak' izanagatik, gogoz eta ilusioz 'gogorrek' dira. Maiatzean taldea sortu zutenetik, duatloi eta triatloi zirkuituko lasterketa guztietan parte hartu dute, eta helburu nagusiak beste batzuk diren arren, estreinako urtean duatloietan Bizkaiko taldekako txapelketako bigarren (Abadiño-ko Laubideta taldearen atzetik) eta Euskadiko laugarren (sprint modalitatean) egitea lortu dute.

Orain ernaldutako loreak iazko Durangoko duatloian du sorburua. "Lasterketak erakarri

Garaiko 'txikerrak'

egin gintuen, eta Lekeitiokoan parte hartu behar genuela erabaki. Azkenean, bata dela bestea dela, gehienok ez ginen joan, baina esango nuke orduantxe piztu zitzaigula gogoia", dio Ander Azpitartek.

Gaur Garai, Durango, Abadiño, Berriz eta Zornotzako 11 lagunek osatzen dute taldea, eta gura duten guztientzako "atea zabalik" dutela diote.

Txapelketak irabaztea ez dute helburuen artean, emaitza onak lortu dituzten arren: Beren beregi, horretara dedikatzen direnei aurre egitea "ia ezinezkoa" dela diote. Garaiko triatloi taldeak mota honetako kirol zaleen bilgune izan gura du; aitzakia bat da, zelanbait, esperintzia berriak bizi eta lagunarte-

Garaiko Triatloi Taldea sortu zuten maiatzean eta 11 kide dituzte

an kirola praktikatzeko. Berba bitan esanda, "ondo pasatzea" dute helburu, eta bide batez, "Garai munduan ezagutaraztea".

Webgunea ere sortu dute (www.garaitt.com) eta hantxe ikusi daiteke taldeari buruzko informazioa. Datorren urteko herriko jaietara begira, mendi martxa bat-edo antolatze asmoa dute: "Udalak eman digun laguntza eskertzeko". ■ J.D.

20 Mentxaka Europako azpitxapeldun

Maria Mentxaka (Berrizen bizi den mungiarra) Europako azpitxapeldun izan da plater-tiro jaurtiketan, 'foso unibersal' modalitatean. Laster Erromako Mundialera joango da.

21 Asier Berasaluzeri elkarrizketa

Berriztarrek bost urte eman ditu Aspe enpresan. Vidarteren promotorek ez dio kontratua berritu, eta orain bizitza berri bati ekin beharko dio, baina ez du pilota mundua uzteko asmorik.

Maria Mentxaka Europako azpitxapeldun plater-tiroan

Erromako mundiala du hurrengo erronka Berrizen bizi den mungiararak

Maria Mentxaka Europako Plater-tiro Txapelketako azpitxapeldun geratu berri da, Frantziako Lazenay herrian, 'foso universal' modalitatean. Europako azpitxapeldun geratu den bigarren biderra da.

Sasoï betean dago Mentxaka. Oraintsu, Espainiako Nazioarteko Sari Nagusia irabazi du Valladoliden, eta Espainiako Txapelketan bigarren geratu da. Europako txapelketako bigarren postuagaz "oso pozik" dago, baina sakonean "pena apurtxo bategaz" ere geratu da, garaipena plater bakarrera geratu zaiolako.

Munduko Txapelketa

Orain, uztailaren 23tik 25erako asteburuan, Erroman jokatu den Munduko Txapelketan du burua. Txapelketa horretan ere azpitxapeldun geratutakoa da, eta prestakuntza egokia burutzen dabilela dio. Hala ere, "gaitza izango da, platerak ohi baino gogorragoak direlako".

Bakarka gertu izan dituen garaipenak Espainiako selezioagaz eskuratu ditu Europako eta munduko txapelketetan. Bost bider segidan munduko txapeldun izan dira, eta beste hiru bider lortu du Europako txapelketa irabaztea. ■J.D.



Mentxakak bigarren biderrez lortu du azpitxapeldun izatea.

Bihar Parapente kontzentrazioa egingo dute Elorrión

Parapente kontzentrazioa deitu du biharko Elorrioko Larrano parapente taldeak. Aurten ekitaldi hori egiten duten bosgarren urtea izango da.

Batzen diren guztiak Udala mendiko minetan aieratuko dira arratsaldean, eta Elorrioko zerua zeharkatuko dute. Haizea aldeko badute, denbora luzeagoan ibili ahalgo dira hegaz, eta San Antonen lur hartuko dute. Hai-zeak behar adinako indarrez jotzen ez badu, hegaldia laburragoa izango da eta Igurian lur hartu beharko dute.

Iaz 30 bat parapentelari

laz 30 bat parapentelari batu ziren kontzentrazioan. Euskal Herri osotik etorri zen jendea, baita Errioxatik ere: "Oporrak pasatzen Euskal Herrian zebilen Kataluniako parapentelariak ere gehitu zitzaizkigun", gogoratu du Iñaki Gabiria Larrano taldeko kideak. Iluntzean, ohi legez, kontzentrazioan parte hartu dutenek eta euren lagunek elkarrekin afalduko dute. ■J.D.

Larrano parapente taldeak bosgarrenez antolatu du ekimena

Trial Txapelketa bihar Atxondon, Markoidako landetan

Atxondoko San Pedro jaien barruan, 4X4 Trial Txapelketa antolatu dute lehenengo biderez bihar, Markoidako Landetan. Atxondoko gazte batzuen ekimenez eratutako lehiaketa arratsaldeko 15:30ean hasiko dute, eta irteeran 20 bat parte-hartzaile izango dira.

Proba Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da

Atxondon burutuko duten lehiaketa Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da, eta ondorioz modalitatean espezialistak direnek parte hartuko dute. Esperientzia gutxi dutenentzako ere ikasteko modu egokia izan daiteke.

Markoidako landetan prestatu dute txapelketarako zirkuitua. Lurrak mugitu dituzte, eta ibilbide gorabeheratsua sortu dute, ikusleentzako ikus-kizuna bermatuko duena.

Izen-ematea bertan

Izena emateko epea zabalik dago, eta triala garatuko den lekuan bertan eman daiteke izena, lasterketa hasi aurretik, 15:00etan. ■J.D.

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2010-2011

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/gep
e-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza
e-posta: gestioheziketa@gmail.com
Tel: 943 71 80 09

Matrikulazioa
Uztailaren 7tik 13a arte

ESKANTZA AKADEMIKOA

MGEP

Oñati Gestio Heziketa

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a

Lanerako gertu!



“Gaztea naiz eta urte batzuetan pilotan jarraitzeko asmoa daukat”



Aspek ez dio kontratua berri berritu Asier Berasaluzeri (Berriz, 27 urte) eta goizetik gauera bizitza aldatu zaio. Dena dela, pilota munduari lotuta jarraitzeko asmoa dauka. Aspen izan duen ibilbideaz eta hemendik aurrera izango duenari buruz jardun dugu.

Abestiak dioen moduan, “Ez dira betiko garairik onenak”, baina ez dakit Asperen erabakia itxaroten zenuen.

Badakigu ez direla sasoirik onenak, baina urtebeterako-edo berritzea eskainiko zidatela uste nuen. Ez nuen itxaroten ez berritzerik; urtebeterako bai, eta bigarrenerako borroka egin beharko nuela aurreikusten nuen. Kolpe gogorra izan da, baina zer egingo diogu! Gauzak horrelaxe etorri dira, eta aurrera egin beharra dago.

Gutun bidez jakinarazi zizuten erabakia, eta ez zaizu modurik egokiena iruditu.

Egoera zelakoa den kontuan hartuta, ulertzen dut bakoitzak bere enpresarentzako onena iruditzen zaion erabakia hartzea. Nik beste iritzi bat izanagatik, ulertzen dut. Baina horrelako kontuak aurrez aurre tratatu beharrekoak direla deritzot, eta ez gutun bidez.

Nola gogoratzen duzu gutuna jaso eta irakurri zenuen unea?

Gutun zertifikatua zen, eta zapatu goizean ekarri zigun postariak. Hasieran pena handia hartu nuen, eta gero, apur bat lasaitu eta egoera aztertu ondoren, haserre puntu bat ere sentitu nuen, erabakia jakinarazteko moduagatik. Hurrengo astelehenean goizean Fernando Vidarteren (Aspeko administratzaile nagusia) deia jaso nuen.

Eta zer esan zizun?

Krisiaren ondorioz partidu gutxiago antolatzen dituztela, eta pilotalekura ere jende gutxiago joaten dela esan zidan. Hartutako erabakia hartzeko arrazoiak horietatik zirela azaldu zidan. Beste aukera bat eman ziezadan saiatu nintzen, baina ez zen modurik egon.

Rober Uriarte abadiñarrari ere berdin gertatu zitzaion iaz. Izan duzu beragaz berba egiteko aukerarik?

Bai, egon naiz Roberregaz. Berari gertatutakoa eta harrezkeroko egindako ibilbidea kontatu dizkit, eta pilota munduari lotuta segitzera animatu nau. Rober lagun handia dut.

“Dagoeneko EgurSport enpresagaz partidu bat jokatu dut”

Azkeneko aste bietan zeure buruari behin baino gehiagotan egingo zenion galdera: hemendik aurrera zer?

EgurSport izeneko enpresagaz dagoeneko partidu bat jokatu dut, eta udan horrela segitzeko asmoa daukat. Irailetik aurrera, afizionatu mailako txapelketak hasiko dira eta profesionaletan

debutatu aurreko martxa hartuko dut.

Beraz, pilota munduagaz lotuta jarraitzeko asmoa duzu.

Pilota asko gustatzen zait, eta gustura joaten naiz entrenamenduetara ere. Lesioek uzten badidate, urte batzuetan pilotan jokatzeko asmoa daukat. Ikusi beharko da bestelako lanagaz bateragarria den, lesioak zelan datozen... baina printzipioz ez daukat pilota uzteko inongo asmorik.

EgurSportegaz asteburuan jokaturako partiduan Rober Uriarte izan zenuen arerio aurreko koadroetan.

Bai, Araban jokatu genuen binaka, eta 22-21 galdu nuen. Beste sententzia batzuk dira. Ez da gauza bera Astelenan artekari pilo baten aurrean edo asteburuan jokatu nuen moduan jokatzeari. Zaleen aldetik ez duzu hainbesteko presiorik sentitzen, beti animatu egiten zaituzte eta gehiago disfrutatzen da pilotan.

Bigarren mailan txapel biren jabe zara. Lehenengoa buruz buru irabazi zenuen, orain lau urte, Labriten Arretxe II.a 22-21 menderatuta. Zelan gogoratzen duzu une hura?

Txapelketan debutatzerik ez nuen inondik inora itxaroten, eta txapeldun geratu nintzen; imajinatu zelako poza! Debutatu eta urtebete eskasera irabazi nuen. Jendeak galdetzen zuten enpre-

sak zelan eman zidan buruz burukoan parte hartzeko aukera, debutatu berri eta nire ezkerregaz. Baina maila banuela demostratu nuen, eta oso une polita izan zen.

2009an binakako txapela irabazi zenuen Urberuagaz.

Garaipen berezia izan zen, hainbat arrazoiengatik. Batetik, Zornotzan jokatu genuen finala eta kristoren giroa egon zen. Bestetik, Xabier Urberuaga nuen bikotekide, eta lagun handia dut. Gainera, lesio bat gaunditzetik nentorren, eta hura ahaztu eta aurrera jarraitzeko garaipen inportantea izan zen.

Iazko kontuak dira. Pilotan zein

“Kirol ikuspegitik barik, enpresa aldetik hartu dutela erabakia esan zidan Vidartek”

profesional mailako beste edozein kiroletan, atzo egindakoa arin ahazten da.

Bai, kuriozoso da. 2009ko binakako txapeldun bioi —Urberuaga ere kalean dago— ez digute kontratua berri. Dena dela, Vidartek komentatu zidan ez zela kirol arloko erabakia izan; erabakia kirol ikuspegitik bakarrik hartu behar izan balute barruan egongo nintzela. Kontua da kontratua une txarrean amaitu zitzaidala, eta niri gertatu zitzaidan moduan, beste edonori gerta zekiokkeen. ■ J.D.

Uriarte, Aldape eta Azpiri txapelaren bila, gaur Zumarragan

Zumarragako pilota txapelketako finalistak erabakita daude, eta Rober Uriarte abadiñarrak eta Andoni Aldape mallabitarak osatzen dute finaleko bikoteetako bat. Aurrez aurre izango dituzte Igor Azpiri elorriarra eta Diez. Finala gaur jokatuko dute, Zumarragako Beloki pilotalekuan.

Finalerdietan Uriartek eta Aldapek 22-16 menderatu zituzten Elezkano eta Landaburu. Uriartek ederto mugitu zuen pilota, eta bera izan zen lauretan onena. Bigarren finalerdian Azpiri eta Diezek 22-16 kanporatu zituzten Larrañaga eta Irureta. Azpirik pilotari abiadura ezarri zion, eta aurrean asmatu egin zuen. ■ J.D.

Pilota Zirkuitu Profesionaleko rankinga irabazi du Antxiak

Frontis enpresako Ander Antxia pilotari abadiñarrak irabazi du Pilota Zirkuitu Profesionaleko rankinga. Bera izan da punturik gehien batu duena. Egoitz Amantegi abadiñarra bosgarren geratu da.

Oraintsu Madrildo Masterreko finala irabazi dio Ander Antxiak Jorge Nagoreri. Triangulo de Oro izeneko pilotalekuan 10-7 eta 10-9 menderatu zuen Arbizuko pilotaria.

Pilotari biak berriro aurrez aurre izango dira Nafarroako lau terdiko txapelketako finalean. Finalerdietan Antxiak 22-8 menderatu zuen Mitxelena, eta Nagorek emaitza berdinarekin irabazi zion Gomezi. ■ J.D.

Peio Goikoetxea onena izan da Bizkaiko erlojupekoan

Jubenil mailako Santa Isabel saria Peio Goikoetxea ermuarrak irabazi zuen. Domekan Bizkaiko erlojupeko txapelketan podiuma Durangaldeko hiru txirrindularik osatu zuten.

Zapatuko proban zortzi txirrindulari ihes eginda heldu ziren azken metroetara eta esprintean gailendu zen Goikoetxea (Cons. Baltar-Ermua). Domekan ere Bizkaiko txapela jantzi zuen ermuarrak Urduñan; erlojupeko kontrakoan, kasu horretan. Bere atzetik Iera Solaguren (Umpro-S.C. Amorebieta) eta Kepa Barrutieta (Cons. Baltar-Ermua) geratu ziren. Taldekako erlojupekoan, berriz, Amorebietako taldea bigarren geratu zen. ■ J.D.



Toki Alai interpretazio zentroak "oso ontzat" jo ditu azken dinamizazio ekintzak

Irailean Habi Kutxak berrikusteko aukera eskainiko dute

Urkiolako Parkean ibilbide berria egiteko aukera asteartean

Mañaria-Aita Kurtze-Olarreta-Mañaria zailtasun ertaineko ibilbidea egin gura dutenek Urkiolako Toki Alain eman behar dute izena

Urkiolako parketxeak parkeko ibilbide berri bat ezagutzeko aukera eskainiko du uztailaren 13an. Mañarian hasi eta, Aita Kurtzeko eta Olarreta igaroz, Mañarian amaituko dute. Guztira, ibilbideak 8,8 kilometro ditu, eta zailtasun ertainekoa da. Udaberri-udan seinalezatu duten ibilbide berri hau hiru-lau orduan egiten da. Joan gura duenak Toki Alai zentroan eman behar du izena, 94 681 41 55 telefonoan. Parte-hartzaileak Mañariko plazan elkartuko dira, 09:30ean.

Balorazioa

Toki Alai Urkiolako interpretazio zentroak "oso ontzat" jo ditu azkeneko dinamizazio ekintzak, izan ere, "helburu nagusiak bete dira; hau da, Urkiolako parkeko inguruak ezagutzera ematea, sentsibilizatzeko eta beragazko

errespetuzko jarrera bultzatzeko, eta naturaz gozatzea, besteak beste". Bestalde, "parte-hartzaileek ekintzak oso ontzat baloratu dituzte".

Antolatu dituzten ekintzen artean, Santutegi Ingurutik ibilbidea dago. Bertan, tokiko etnografiari buruzko azalpenak eman zituzten; santutegiaren historia, ermitak, antzinako ohi-turak... 20 pertsonak parte hartu zuten. Jendeak gustura egin zuen beste txango bat Atxarte-Urkiola-Atxarte ibilbide zirkularra izan zen. Ibilbide horretan 17 lagunek hartu zuten parte. Atxartetik Pol-Polera igo ziren lehenik, eta gero pistatik santutegira eta jaitsiera Hiru Gurutzeen begiratoki ondoko antzinako galtzadatik. Gorbeiaiko Parke Naturalera ere ibilbide gidatua antolatu zuten, Arratiako jende-

ak Urkiolara joateko erabiltzen zuten bidea jarraituz. Guztira, 19 lagunek egin zuten ibilbide hori.

Habi-Kutxa

Oporren bueltan, irailaren 26rako, familiei zuzendutako ekintza antolatu dute Urkiolako Parketxean. Duela lau urtetik, urtero antolatzen dute, antolatzailerik diotenez, "bai haurrek bai gurasoek asko gozatzen duten ekintza delako". Toki Alai inguruan, hainbat habi-kutxa daude eskegita urte osoan zehar, eta hauek batzuetan hegazti batzuek habia egiten dute (amilotx mottodunak eta urdinak, kaskabeltz handiak...). Egun horretan habi kutxak jaitsi, espeziak identifikatu eta habi-kutxak garbitzen dituzte. Ekintzan parte hartu gura dutenek Toki Alaira deitu behar dute.



OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA




FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenerik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00

ESKU-TERAPIA



Masajea osteopatiarekin
Aitor

Sasikoa 28 behea - Adikor zentroan
48200 Durango

tf. 619 17 61 53

ESTETIKA



Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

Saldu / Erosi
Errentan eman / Errentan hartu
Lan eskariak / Lan eskaintzak
Galdu / Aurkitu
Eman / Hartu

Eguazteneko 19:00ak arte
jasotako iragarkiak bariku
horretako alean
argitaratuko ditugu.
Beranduago jasotakoak
hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org.
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23

Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trasteleku (komuna ateratzeko aukera dauka) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Iggogailua jartzekotan dira. Berogailua eta leiho berriak dauzka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Telefonoa: 655 71 21 05

Abadiño. Muntzaratzen etxebizitza salgai. 85 m², 3 logela, harrera, sukaldea-egongela, bainugela bat eta beste komun bat, balkoi handia, garajea eta trasteroa. Telefonoa: 94 681 68 91.

Abadiño. Etxebizitza salgai Matienan: hiru logela, sukaldea, jangela, komuna, ganbara handia eta balkoia. Telefonoa: 650 82 35 41

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. Telefonoa: 647 777 392

